

artelka

ZAINZAREN NEGOZIOA



Zaintza-sistema publikoa eta estatukoa defendatuta, bere interesak defendatzen ditu erdi-mailako klaseak. Izan ere, bere existentzia bermatzen du, bi zentzutan. Lehena existentzia enpirikoa da, kuantitatiboa, sistema publikoaren eta estatu-inbertsioen bitartez bermatzen baitu bere erreprodukzioa erdi-mailako klaseak. Bigarrena, berriz, existentzia erreal da: bere nagusitasuna ezartzen dio proletalgoari eta bere burua baieztatzen du ekoizpen-sistema kapitalistan, landenbora irabazten baitu bere funtzio burokratiko-administratiboa aurrera eramateko eta bere estatus sozial bereizia balioan jartzeko. Baina, bitartean, proletalgoak, soilik klase sistemaren abolizioaren bidez mailaz igo daitekeen klase sozialak, Kapitalaren erakundeetan gotortutako erdi-mailako klaseko egitura baten aurrean bere existentzia berresten du klase subordinatu gisa. Egitura horrek, gehienez ere, klaseen arteko progresioan gizabanako batzuk sustatzea lortzen du, baina bere benetako emaitza proletalgoaren miseria luzatzea da.

Edukia

6

10

22

40

EDITORIALA

Arteka

Zaintza-sistema publikoaz

KOLABORAZIOA

Maitane Urkola

Zaintzaren auzia emakume langileon ikuspegitik

ERREPORTAJEA

Arteka

Zaintza-lanen sektorea aztergai

**HISTORIA
ERREPORTAJEA**

Kiara Angulo

Erregimen komunistetan emakumeak zaintza-lanetatik askatzeko egin zituzten proposamenak aztergai

Zaintza- sistema publikoaz

Editoriala

2023ko azaroaren 30ean zaintza-greba bat izan zen Euskal Herrian. Antolatzaileen esanetan, zaintzaren pribatizazioaren eta merkantilizazioaren aurka zaintza-sistema publikoa eta komunitarioa aldarrikatzeko egun bat izan zen. Zaintza esku pribatuen atzaparretatik askatu eta ardura kolektibo bat izan dadila aldarrikatu zuten; izan ere, zaintzaren pribatizazioak bere degradazioa dakar eta, ardura kolektibo bat izanik, Estatuak hartu behar du bere gain, zerbitzu publikoak indartuz horretarako. Aurtengo Martxoaren 8an ere ildo beretik jarraituko dutela dirudi.

Bistan denez, aipatutako irakurketak arazo larriak ditu. Alde batetik, zaintzaren merkantilizazioa bere izaera pribatuarekin lotzen du soilik. Bestetik, desmerkantilizazio gisa ezaugarritzen du Estatu kapitalistak bere gain hartzea funtzio hori. Azkenik, nahasi egiten ditu zaintzaren antolaketa kolektiboa eta Estatuaren zerbitzu publikoak. Hori dena ez da, baina, akats soil bat; are, koherentea da ideologia erreformistarekin.

Zaintza, zerbait bada, ez da izaki bizidunei dagokien aktibitate natural bat, aktibitate sozial bat baizik, indarrean den sistema kapitalista erreproduzitzea beste helbururik ez duena

Zaintzaren auzian ere, beste auzi politiko guztietan bezala, soluzioak, proposamenak eta ebazpenak klase-interesen arabera dira; ilusio horien guztien atzean, hau da, Estatuaren esku-hartzean konponbide kolektiboa ikusten duten ameskerien atzean, gainbeheran den erdi-mailako klasearen ideologia aurkitzen da. Horrexegatik, bere proposamen politikoek ez diote, inondik inora ere, zaintzaren auziari errotik heltzen, ez eta proletalgoarentzat benetako konponbiderik ekartzen ere.

Azken batean, erdi-mailako klasearen ongizatea bermatzeko bidean aurkezten diren proposamenak dira; edo zaintza, zerbait bada, ez da izaki bizidunei dagokien aktibitate natural bat, aktibitate sozial bat baizik, indarrean den sistema kapitalista erreproduzitzea beste helbururik ez duena. Erdi-mailako klasearen eskuetan, zaintza erdi-mailako klase horren zaintza da, edo bere bermea erdi-mailako klase gisa bizirauteko.

Fenomeno moderno da zaintza, hein handi batean. Izan ere, garai aurremodernoetan gizakiak bere burua erreproduzitu bazuen ere, hori ez da izan zaintza-sistema bat antolatuta duelako, ezta zaintzak berak aktibitate produktiboarekiko esfera independente bat hartu duelako ere. Kontrara, ekoizpen-esfera oso bat hartzen du zaintzak, eta horrekiko kontzientzia hartzen dute gizakiek, bizitza sozialaren erreproduzioa elkarrekiko independenteak diren aktibitateen bidez gauzatzen den eta aktibitate horiek merkantzia eran hezuramaitzen diren garai historiko batean; hau da, lanaren banaketa hedatu eta lana hainbat esfera pribatutan antolatzen den garai batean.

Zaintza esfera independente bilakatzen da esfera produktiboak nagusitasuna irabazten duenean, hau da, esfera produktiboak gizakiaren erreprodukzioaren gaineko kontrol despotikoa ezartzen duenean. Eta hori posible da ekoizpenak, zentzu komunista batean ulertutako gizakiaren beharrei erantzun ordez, indar sozial objektibo bati erantzuten dionean soilik; ekoizpena kapital-ekoizpen bilakatzen denean. Zentzu horretan, zaintza gisa ezagutzen dena erreprodukzio komunistarekiko erabat aurkakoa da: zaintza ez da erreprodukzio sozialetik desberdindu ezin den prozesu bat; ez da erreprodukzio sozialaren oinarria eta helburua. Zaintza, gizarte kapitalistan, erreprodukzio sozialaren mendeko prozesu bat da; eta, zaindu egiten bada, Kapitalaren ekoizpenari mesede egiten diolako gertatzen da.

Zaintza esfera independente bilakatzen da esfera produktiboak nagusitasuna irabazten duenean, hau da, esfera produktiboak gizakiaren erreprodukzioaren gaineko kontrol despotikoa ezartzen duenean. Eta hori posible da ekoizpenak, zentzu komunista batean ulertutako gizakiaren beharrei erantzun ordez, indar sozial objektibo bati erantzuten dionean soilik; ekoizpena kapital-ekoizpen bilakatzen denean

**Lan produktiboak
eta erreproduktiboak
dakarten karga
bikoitzaren aurrean,
bigarrena lan produktibo
bilakatzea aldarrikatzen
dute, hau da, esfera
pribatutik lanaren esfera
publikora salto egitea**

Testuinguru horretan, zaintzarekiko kontzientzia hartzeak honakoa esan nahi du: zaintza-sistema bat antolatu behar da ekoizpen kapitalistaren efizientzia handitu ahal izateko, hau da, langile-klasea prest egon dadin Kapitalarentzat lan produktiboa egiteko. Beste era batera esanda, zaintzarekiko kontzientzia hartzea estuki lotuta dago ekoizpen kapitalistaren garapenari, erreprodukzio-lanak ardura kontziente bilakatzen baitira soilik ekoizpena bere izaera naturaletik aldentzen denean, alegia, ekoizpenak nagusiki erreprodukzio biologikoari erantzun ordez, Kapitalaren erreprodukzioari erantzuten dionean. Une horretatik aurrera, lana ez da gizaki biologikoaren erreprodukzio lan bat izango –zeinak, jakina, harreman sozial batzuk erreproduzitzen dituen–, edo gizakia ez da bere lanaren arabera biologikoki erreproduzitzuko; aitzitik, gizakiaren erreprodukzioa Kapitalaren produkzioaren baldintza bilakatzen da eta, zentzu horretan, prozesu horren baldintza tekniko-zientifiko bihurtzen da: zaintza-sistema bilakatzen da.

Aipatutako kontzientzia, beti esplizitua ez bada ere, inplizitua da zaintza-sistema publikoa aldarrikatzen duen edozein ideologiarentzat: lan produktiboak eta erreproduktiboak dakarten karga bikoitzaren aurrean, bigarrena lan produktibo bilakatzea aldarrikatzen dute, hau da, esfera pribatutik lanaren esfera publikora salto egitea. Baina hori, soluzio bat izan beharrean, arazoan sakontzea da. Izan ere, lan produktiboaren gailentasuna aldarrikatzen da, alegia, ekoizpen kapitalistarena. Eta, beraz, kontrakoa zabaldu nahi badute ere, lan erreproduktiboaren sozializazioaren atzean ezkutatzen dena Kapitalaren nagusitasuna da, eta zaintzaren subordinazioa Kapitalaren interesetara.

Hori agerikoa da eskaintzen den soluzioan. Hain zuzen ere, lan erreproduktiboak sozializatzeak, adiera kapitalistaren arabera, honakoa esan nahi du: ez da lan produktiboa zaintzarako denbora kentzen duena, alderantziz baizik. Gainera, zaintza lan produktibo bilakatzeak lan produktiboak handitzea dakar de facto –lan produktiboa zentzu kapitalistan ulertuta: enpresa batentzat lan egitea–, baina are gehiago: zaintza lan produktibo bilakatzen da, horretatik askatu den langileak denbora eta indar gehiago izan dezan lan produktiboetan aritzeko.

Horri guztiari zaintza-sistema publikoaren aldekoen mezu lazgarriak gehitu behar zaizkio: hurkoa zaintzearen aurkako mezuak, zaindu beharrak sortzen duen nazka adierazten duten mezuak... Gure hurbilekoen zaintza beste bati egokitzea, Estatu kapitalistari gure senideen eta lagunuen zaintza esleitzea; hori baino jarrera zitalagorik ez dago. Baina hori da, azken finean, erdi-mailako klasearen ideologia; berekoikeria, eta elkartasunean oinarritutako zaintza-etika proletarioari gorrotoa, noraino eta zaintza bera soldatapeko behar bilakatzeraino.

Proposamen orokorrak –zaintza-sistema publikoa– indartu egiten ditu, hortaz, erdi-mailako klasearen sistema eta ideologia. Baina gehiago ere badago, proletalgoari hegemoniaren auzitik haratago ere gailentzeko. Eta hori proposamen zehatzean aurkitzen dugu.

Grebara deitu zutenen arabera, beren proposamenak zaintzan diharduten langileen egoera hobetzea du helburu. Baina sistema publikoak nola funtzionatzen duen dakienak badaki hori ez dela horrela. Zaintza-sistema publikoak, proletalgoaren egoera hobetu ez eta kaltetu egiten du, erdi-mailako klasearen mesederako.

Alde batetik, zerbitzu publikoetarako sarbidearen auzia dago. Jakinak dira proletalgoaren geruza askori ezartzen zaizkien baldintzak, horietako askok sarbidea lortzeko duten ezintasuna... Horri gehitu behar zaio, grebalarien ustearen aurka, zerbitzu publikoak merkantilizatuta daudela, hots, Estatuaren gaitasun ekonomikoen arabera antolatzen direla, eta, beraz, guztiz mugatuak direla eta kapital-metaketaaren dinamikaren menpekoak.

Bestetik, zerbitzu publikoetako langileak izan behar ditugu kontuan. Lan horietara sartzeko baldintzek ere, hein handi batean, proletalgora aukera horietatik kanpo uzten dute: kasu askotan ikasketarik gabeak, eskubiderik gabeko etorkinak, sarbide-probetan saiatzeko aukerarik gabeak... Hau da, zaintza-sistema publikoak ez du zaintzan lan egiten duen proletalgoarentzat soluziorik eskaintzen; kontrara, bere egoera are okerrago egiten du, bere lan-baldintzak okerrago dituelako, proletalgora legez kanpo eta eskubiderik gabe lan egitera kondenatuz. Pobretze-egoera horretan, proletalgoaren kriminalizazioa handitu egiten da, erdi-mailako klaseak gidatuta. Proletalgoari ezarri dizkioten bizi-baldintzak bere aurka erabiltzen dituzte, gorrotoa hedatzen dute proletalgoaren estatus alegalaren eta, kasu askotan, ilegalaren aurka. Miseria aitzakia bilakatzen dute miseria handitzeko.

Zaintza-sistema publikoa eta estatukoa defendatuta, bere interesak defendatzen ditu erdi-mailako klaseak. Izan ere, bere existentzia bermatzen du, bi zentzutan. Lehena existentzia enpirikoa da, kuantitatiboa, sistema publikoaren eta estatu-inbertsioen bitartez bermatzen baitu bere erreprodukzioa erdi-mailako klaseak. Bigarrena, berriz, existentzia erreala da: bere nagusitasuna ezartzen dio proletalgori eta bere burua baieztatzen du ekoizpen-sistema kapitalistan, lan-denbora irabazten baitu bere funtzio burokratiko-administratiboa aurrera eramateko eta bere estatus sozial bereizia balioan jartzeko.

Gure hurbilekoen zaintza beste bati egokitzea, Estatu kapitalistari gure senideen eta lagunen zaintza esleitzea; hori baino jarrera zitalagorik ez dago

Baina, bitartean, proletalgoak, soilik klase sistemen abolizioaren bidez mailaz igo daitekeen klase sozialak, Kapitalaren erakundeetan gotortutako erdi-mailako klaseko egitura baten aurrean bere existentzia berresten du klase subordinatu gisa. Egitura horrek, gehienez ere, klaseen arteko progresioan gizabanako batzuk sustatzea lortzen du, baina bere benetako emaitza proletalgoaren miseria luzatzea da.

Eta, hala ere, edo horregatik, bizi duen miseriagatik, proletalgoak bere anai-arrebak zaintzen dituenean, elkartasuna etika iraultzailearen gainean eraikitzen du –hori oso oinarritzkoa izan arren–, eta ez klase-interes korporatibisten gainean. ●

ZAINTZAREN AUZIA EMAKUME LANGILEON IKUSPEGITIK

Testua — **Maitane Urkola**

Irudia — **Saioa Alonso**


Hauteskundeen atarian, zaintzaren auziaz hitz egiten ari dira hainbat eta hainbat alderditako politikariak. Egoera horren erantzule direnek aldaketaren motor gisa saldu nahi dute euren burua. Horren aurrean, hainbat gogoeta partekatu nahiko nituzke zaintzaren egoeraz, joan den azaroaren 30eko Greba Orokorrak utzitakoaz eta ikuspegi sozialistatik zaintzaren problematikari eman beharreko aterabideaz.

ZAINTZA-LANEN EGOERA

Emakume langileen zapalkuntzak hainbat ezau-garri baditu ere, azpimarratzekoa da zaintzaren auziak emakumeon bizitzetan duen eragina. Izan ere, emakume langileok ekonomikoki eta sozialki zapalduta mantentzen gaituen mekanismoetako dira zaintza-lanak. Historian zehar, emakumeen gain jausi dira etxeko lanak eta senideen zaintza, eta, horrez gain, soldatapeko lanean ere aritu behar izan dute; horrek zapalkuntza bikoitza eragin du emakume langileengan. Soldatapeko lanean ere zaintzaren eta garbiketaren arloa da sektore feminizatuena. Halaber, zaintza nahitaezko eginbehar sozial bat izanik, gaurkotasuneko problema bat izaten jarraitzen du, besteak beste, gizartearen zahartzea dela eta. Gero eta jende gehiago dago dependentzia-egoeran, eta zaintza-zerbitzua areagotzea eskatzen du horrek.

Zaintzaz arduratzen diren emakumeen bizi-baldintzen inguruan luze eta zabal jardun dezakegu. Ordea, testu honek duen tamaina dela eta, hainbat ohar soilik egin nahi nituzke. Batetik, emakume langileok etxean egin behar dugun lanaz arituko naiz. Oraindik orain, emakumeok, soldatapeko lanaz gain, etxearen kudeaketaz eta familiako ki-deen zaintzaz arduratzen gara. Lan-zama horrek

Enpresa kapitalisten interes ekonomikoek ipintzen dituzte zaintza-zerbitzuen oinarriak





emakumeok sozialki baztertuta egotea eragiten du, besteak beste, mugatu egiten duelako gertukoekin egoteko denbora, edota aisiaz gozatzeko aukera. Bestetik, zaintzaren eta garbiketaren sektorean lanean diharduten emakumez egingo ditut hitz batzuk. Nabarmentzekoa da erabat zaugarria dela zerbitzu horietan lan egiten duten emakumeen egoera; hau da, lan-baldintza ezegonkorrak izaten dituztela. Hona hemen hausnartzeko zenbait adibide: lanetik kaleratzea eta jendartean zabalpenik ez izatea, hainbat hilabetez soldatarik ez jasotzea, kontraturik gabeko lanak egitea, hitzartutakoak baino ratio handiagoak inposatzea, eskubide politikoen urraketak, etab.


Gainera, Estatuari ahalik eta kosturik txikiena ekar diezaion, zerbitzu horiek azpikontratatu edota pribatizatu egiten dituzte. Kasu horietan, enpresa kapitalisten interes ekonomikoek ipintzen dituzte zaintza-zerbitzuen oinarriak. Enpresek merkatuaren logikari erantzun behar diote, hau da, errentagarritasunari eta lehiakortasunari. Horren adibide modura ditugu zerbitzu kontzertatuak: dirua instituzio publikoek jartzen dute, baina kudeaketa, aldiz, enpresa pribatuen esku geratzen da. Enpresa pribatuek, diru gehiago eskuratzeko, ahalik eta diru gutxien bideratzen dute lan-baldintza eta zerbitzuen kalitatea bermatzera. Enpresen irabaziak ziurtatzeko, zaintza-zerbitzuen baldintzak eta langileen lan-baldintzak okerragotzen dituzte.

Egoera halakoa izanik, azkenaldian, sektore horretako langileen borroka ugari ari dira gertatzen. Nahiz eta komunikabideek, enpresek eta politikariek sektore horretako langileen beharrei eta interesei entzungor egin, beren lan-baldintzen alde borrokan ari dira langileak. Borrokan dihardutenen aurkako jazarpena ere ikusi dugu: greba egiteagatik kaleratuak izatea edota greba eskubidea ukatzea, Poliziaren jazarpena, borrokan ari diren langileen egoeraren inguruko zabalpenik eza, garrantzia mediatikoa galdu bezain pronto albo batera utzitako borrokek, etab.

GREBA OROKORRA AZTERGAI: ALDARRIKAPENAK ETA BORROKAK

2023an, Denon Bizitzak Erdigunera plataformak Greba Orokor Feminista baterako deialdia egin zuen, zaintzaren problematika erdian jartzeko eta hari aurre egiteko “zaintza-sistema publiko-komunitarioa” aldarrikatzeko. Dinamika edo prozesu horren helburu nagusia instituzioak interpelatzea izan da, zaintzarako eskubide kolektiboa berma dezaten. Hori benetan berma dadin eta bestelako zaintza-zerbitzuak gara daitezen, sektorearteko mahai bat sortzea proposatu dute; alderdi instituzional, sindikal eta bestelako eragile sozial-feministaz osatuta. Grebaren ostean ere aldarrikapen horiekin jarraitzen du plataformak.

Modu apalean bada ere zaintzaren auziaren inguruko hainbat argipen egin ondoren, zaintzaren arloko Greba Orokorrak potentzial politikoa eduki zezakeela ikus dezakegu, aukera ematen baitzuen zaintzaren problematikari zein martxan dauden borrokei zentralitatea eta batasuna emateko, eta zaintzaren arloko aldarrikapen politikoak plazaratzeko. Halere, kontuan izan behar ditugu zaintzaren arloko zerbitzuen eta langileen egoera dela-eta greba egunak berez zituen zailtasunak, hala nola zerbitzu minimo oso handiak edota eskubide politiko urriak, sektore zaugarria izatearen ondorioz. Greba Orokorra, bere zentzu historikoan, tresna politiko garrantzitsu izan da langileok enpresari eta haien menpeko politikari profesionalen ordena ekonomikoari eta politikoari aurre egiteko, baita langileen antolakuntza indartzeko ere. Dena den,



azaroko greba egunak ez zuen behar zukeen potentzialitate politikoa gauzatu; nagusiki, lanpostuak ez zirelako modu masiboan itxi edota greba eguna ez zelako langileriaren geruza zabaletan hedatu.

Hala ere, egun horren harira, bi auzi aztertu beharko genituzke: batetik, greba bera tresna politiko gisa eta, bestetik, mobilizazioak. Esan dezakegu grebak, tresna politiko gisa, ez zuela zentralitatearik eduki. Horri dagokionez hiru puntu nagusi egongo lirateke azpimarratzeko. Lehenik eta behin, lan-zentroetan ez zen lortu grebarekiko atxikimendu handirik, orokorrean, ez baitzen greba egiteko beharrik sentitu. Bigarrenik, greba modu sinboliko-informatiboan proposatzearen ondorioz, berezkoa duen izaera borrokalaria kendu zitzaion hari. Adibidez, eguneko piketeak informatiboak izatea eragin zuen; are gehiago, bestelako borroka-molde oro arrotz edo lekuz kanpoko gisa antzeman zen. Hirugarrenik, borroka-prozesuak instituzioetan aldaketak eragiteko erabiltzeak antolakuntza propio-rako gaitasunak apaltzea dakar. Greba Orokorreko mobilizazioei dagokienez, berriz, jendetsuak izan ziren, horiek hartu baitzuten zentraltasuna. Hain zuzen ere, grebaren arrakasta justifikatzeko, mobilizazioen irudiak erabili zituzten. Horrek guztiak erabat nahasten du Greba Orokorren ulerkera.

Aldarrikapenei eta borroka-prozesuaren zentzuari erreparatzen badiegu, emakume langileon interesak horretatik guztitik kanpo kokatzen direla ikus dezakegu. Hasteko, Estatuari zaintza-zerbitzu publiko bat exijitzeak Estatuari jotzen du zaintzaren problematika gainditzeko eragile nagusitzat, eta ez langileriaren antolakuntza independentea. Gainera, kontuan hartu behar da estatuak ez direla agente neutralak, oligarkia finantzarioaren mendeko agente zapaltzaileak baizik, eta beren eskutik etor daitezkeen neurriek ez diete langileriaren interes orokorre erantzuten; kontrara, burgesiaren geruza ezberdinak asetzen dituzte, eta etorkizuneko lan-

Azken urteetan, itxuraz onuragarriak izan daitezkeen hainbat aldaketa legal egin ditu zaintzaren sektorean Espainiako Gobernuak, etxeko langileei loturiko erreforma kasu. Errealki, ordea, ezer gutxi aldatu du emakume langileen bizitzetan

gileriaren zama ekonomikoa handitzen dute, kasu askotan. Bestalde, Estatuak gaurko borroken ondorioz onar liezagukeen eskubidea, inolako oztoporik gabe uka liezaguke bihar. Hori Ongizate Estatuaren gainbeheran ikus dezakegu: krisi ekonomiko bete-betean, zerbitzu publikoen egoerak okerrera egin du etengabe. Azken urteetan, itxuraz onuragarriak izan daitezkeen hainbat aldaketa legal egin ditu zaintzaren sektorean Espainiako Gobernuak, etxeko langileei loturiko erreforma kasu. Errealki, ordea, ezer gutxi aldatu du emakume langileen bizitzetan. Funtsean, proletariotza bazterrean uzten baitu legedi klasistak. Paperik gabeko etxeko langileek, esaterako, orain arte bezain esplotatuta eta zaugarri jarraitzen dute.

**Emakume
Langileen zati
handi bat politika
instituzionalen
abantailetatik
kanpo geratzen
da, izatez, ukatuta
baititu politika
horrek barne har
ditzakeen eskubide
horiek guztiak**

Greba eguna bera eta ondorengo prozesuak instituzioetan eragiten saiatzeko baliatu dira, baita zaintza publiko komunitarioa exijitzeko ere. Urteak dira Euskal Autonomia Erkidegoan zerbitzu publikoen kalitatean atzerapausoak ematen ari direla. EAJk gidatutako politikak, inbertsio publiko faltak, zerbitzu publikoaren pribatizazioak (azken 30 urteetan erresidentzien %80 pribatizatu dituzte) eta abarrek egoera okerragotzea eragin dute. Kontuan hartu behar da politikagintza eta enpresa-mundua lotuta daudela; izan ere, kasu batzuetan, politikari izandakoak dira enpresa pribatu horietako zuzendaritza-postuetan daudenak, eta, besteetan, enpresari izandakoak pasatzen dira kargu politikoak edukitzera (*ate-birakaria* izendatu izan dena). Hortaz, zerbitzu publikoa txartzearen kontura, enpresari eta politikari ugari aberastu dira. Egoera horretan, Denon Bizitzak Erdigunera mugimenduaren bitartez, aldaketak eragin nahi izan dira instituzioetan, alderdien arteko ika-mikaren edo zirku elektoralaren erdian jarrita zaintzaren problematika. Hala eta guztiz ere, plataforma horrek posizio politiko argi batekin egiten du hori: bere interes korporatibistak gailentzen dira. Borroka-prozesu horren bitartez, EAJren borondate falta seinalatu nahi izan du eta, bide batez, ezkerreko gobernuaren (kasu honetan EH Bilduren) beharra mahaigaineratu zaintza-sistema publiko-komunitarioa eraikitzeko. Horrekin, politika instituzionalak dituen mugak baztertu ditu.

Dena dela, hauteskunde bezperan, Eusko Legebiltzarreko hainbat alderdik atera dute mahai gainera zaintzaren auzia. Proposamenen artean, ordea, ez dago ezberdintasun handiegirik. Guztiek proposatzen dute zaintza-eredu feminista, publikoa eta komunitarioa, baina proposamen guztien artean bada alde jakin bat: bakoitzaren interes alderdikoiak eta ekonomikoak. Alderdi politiko guztiek arazo sozialei erantzuteko borondatea daukatela erakutsi nahi dute, instituzioetatik egin daitezkeen aldaketetarako lehen indar gisa aurkeztuta beren alderdia. Horren atzean, baina, instituzio publikoen mugak ezkututzen dira, krisi ekonomikoa-

ren baitan murrizten ari baitira estatuen zerbitzu sozialak. Bestalde, eztabaidan dago gobernatzeko asmoa daukan alderdietako bakoitzak ordezkatzeko duen enpresa-eredua ere. Eztabaida horren atzean itxurakeria besterik ez dago, alderdi instituzional guztiek derrigor egiten baitute, besteak beste, azpikontratazioaren alde. Gauzak horrela, enpresa-eredu horiek guztiek erantzuten diote merkatu kapitalistaren logikari, eta, euren jarduna errentagarria izan dadin, inoiz ezingo dute zaintza-zerbitzuen kalitatea lehenetsi, enpresen interesak baizik. Institutuzioak aldaketarako motor gisa definitzeak arazoaren kudeaketa hobe edo txarrago baten arteko eztabaidan kokatzen gaitu, eta inola ere ez zaintzaren problematikari aurre egiteko aterabide errealean batean.

Aldarrikapen politiko horiek eta instituzioak interpelatzea erdi-mailako klasearen programaren parte dira, justuki, estatu kapitalistaren barruan hobekuntza legalak eskuratzea eta bere bizi-baldintzak hobetzea delako haien helburua. Aldarrikapen- eta borroka-eredu horrek erreformak hartzen ditu helburutzat, hau da, borrokaren azken zentzua estatu kapitalistaren barruan aldatzeko eta hobekuntzak gauzatzean datza. Xedetzat du, hala, gaur egungo klase-gizartea ontzat hartu eta bere barruan ahalik eta bizi-baldintza duinenak defendatzea. Baina emakume langileen zati handi bat politika instituzionalen abantailetatik kanpo geratzen da, izatez, ukatuta baititu politika horrek barne har ditzakeen eskubide horiek guztiak. Esate baterako, proletarioen zati handi bat etorkina eta paperik gabea bada, argi dago aipatutako aldarrikapen-esparru horretatik kanpo geratzen direla behar handiena duten pertsonetako asko. Hori horrela izanik, aldarrikapen iraultzailea da langileen kontrolpean egongo den zaintza-sistema bat eraikitzearen aldekoa. Inbertsio kapitalisten mende egon ordez, langileen interesak eta beharrianak ordezkatzeko dituen zaintza-sistema eraikitzeak gizartearen gehiengoaren eskubideak defendatzea esan nahi du.

ZAINTZAREN AUZIA IKUSPUNTU SOZIALISTIK

Emakume langileen emantzipazio erreala egikaritzeko, ezinbestekoa da zaintza-lanen egiturazko aldaketa bat gauzatzea: zaintza-lanen sozializazioa lortzea. Gaur-gaurkoz emakume langileok bana-ka, familia-eremuan eta lan-zama izugarriarekin egiten ditugun lan horiek guztiak sozializatu egin behar dira. Emakumeon arduraz izateak gizartearen arduraz izatera igaro behar dira eta, horretarako, familia-eremuko lanak izan beharrean, gizartearen antolaketa berak barne hartu behar ditu.

Gainera, ekonomikoki devaluatzen dira nagusiki emakume langileok egiten ditugun zaintza- eta garbiketala-lanak. Zentzu horretan, klase-gatazka nabarmentzen da, lan-prozesu bakoitzari (lanak dituen ezaugarrien eta betetzen duen funtzio sozialaren arabera) balio ezberdina emateak hierarkizazio bat baitakar. Lan-sektore feminizatuetako lanek, askotan kualifikazio-maila baxua eskatzen dutenek hain zuzen ere, ez dute aitortza sozialik. Hori dela eta, lan-baldintza okerragoak izaten dituzte. Premisa horrek, ordea, ekonomia kapitalistari erantzuten dio; hau da, gizarte kapitalistan ezinbestekoa da subjektu devaluatuak izatea, euren bizkarretik gero eta irabazi handiagoak eskuratu ahal izateko. Argi izan behar dugu, baina, bizi-raupen sozialerako beharrezkoak diren lan-prozesu guztiek aitortza sozial bera eduki behar dutela; izan garbitzaile-lanak, izan irakasle-lanak, izan mekanikari-lanak. Horregatik da garrantzitsua *guztionzat soldata-berdintasuna* aldarrikatzea, berekin dakarrelako guztion bizi-baldintzak berdintzea (zentzu gorakorrean).

Gizarte kapitalistaren barruan, ezinezkoa da guztiok bizi-baldintza berak izatea, kasetan banaturiko gizartea gainditzea galdegiten baitu horrek. Baina guretzat ezinbestekoa da gizarte sozialistaren oinarriak ipintzen hastea, guztion ongizateari egin diezaikegun ekarpenari aitortza eginda eta guztion aukera-berdintasunaren alde eginda. Kontuan hartu behar da, hala ere, aldarrikapen hori kontraesanean dagoela erdi-mailako klasearen programa politikoarekin. Erdi-mailako klaseak interes politiko propioei erantzuten baitie, alegia, gizarte kapitalistan gero eta botere-kuota eta bizi-baldintza hobek lortzea bilatzen du. Horrez gain, erdi-mailako klasearen bizi-ereduari loturikoak baino baldintza okerragoetan bizi den langileria-
ren gehiengoari esker sostengatzen da hori guztia: zerbitzu pribatuetara jo ezin duen langileria hori, miseriazko soldatak kobratzen dituen, erdi-mailako klaseak bere gain hartu nahi ez dituen lanak egitera behartuta dagoena eta abar. Langileontzat hori ez da aukera bat, gure emantzipazioa gauzatze-ko programa politikoak beharrezkoa baitu iraultza sozialistaren garapena.

Garrantzitsua da guztiontzat soldata-berdintasuna aldarrikatzea, berekin dakarrelako guztion bizi- baldintzak berdintzea (zentzu gorakorrean)

Hori guztia kontuan hartuta, instituzio kapitalistak aldaketarako motor direla saltzen duten aldarrikapen sozialdemokratek ezer gutxi dute emantzipatzailetik. Funtsean, liberatuen eta burokraten interesek eta erdi-mailako klaseko emakumeen behar politikoek gidatutako mugimenduak edo dinamikak izaten dira. Programa sozialdemokrataren barruan emakume langile ugari antolatzen badira ere, politikoki umezurtz uzten dute emakume langileon osotasuna, gure bizi-baldintzak hobetzeko ahalmenik gabe. Hori horrela, beharrezkoa da emakume langileon interesek gidatutako antolakuntza politiko independentea eraikitzea; hain zuzen ere, instituzioen eta politikari profesionalen fartsatik kanpo antolatuko den eta guztiok bizi-baldintza berak izan ditzagun lan egingo duen antolakuntza sozialista eraikitzea. ●







ZAINZA-LANEN SEKTOREA AZTERGAI

Testua — **Arteka**

Irudia — **Maria Guerrero**





Zenbaki honetako kolaborazio-testuaren euskarri izatea du helburu testu honek. Azken urteetan, sekulako pisua hartu du Mendebaldeko ekonomietan zaintza-lanen sektoreak (eta horren barruan, neurri batean behintzat eta merkataritza-termino bat den heinean, Zilarrezko Ekonomia delakoak; alegia, 50 urtetik gorako pertsonen merkantzia-beharrak asebetetzean zentratutako sektore ekonomikoak). Kontuan hartu behar da, alde batetik, ekoizpen-eredu kapitalistak bizitzako esparru guztien merkantilizazioan murgiltzen duela bere burua, plusbalioaren erauzketan oinarrituta dagoenez, halabeharrez behar baitu Kapitala modu errentagarriari inbertitzea zirikitu eta espazio berriak etengabe bilatzea. Merkatu berriak irekitzea oihanean bide berri bat irekitzearekin aldera daiteke kapitalista abenturazaleentzat, bere garaian (eta historian zehar) periferiako herrialdeekin gertatu bezala: kapital-metaketari parez pare irekitako espazio berriak bilatzen dituzte, inbertsio eta metaketa-prozesu berrietarako lurrak. Arnasgune berriak, aurrera egiteko aukera berriak.

Harri batez bi kolpe: lan-indarraren erreprodukzioa soldatapeko lanaren dinamikara subordinatuta egotetik lan-indarraren erreprodukzioa bera ere soldatapean jartzera eta merkantilizatzen igaro nahi izan dute aipatutako bilaketa horretan. Are gehiago krisi-testuinguruetan, arnasmune horiek hil ala biziko funtzio bat betetzen baitute. Egun, zaintza-lanen sektorean aritzen diren pertsonen kopurua ia 400.000.000 lagunekoa da. Munduko langileen %11,5 da hori; emakumezko

Egun, zaintza-lanen sektorean aritzen diren pertsonen kopurua ia 400.000.000 lagunekoa da. Munduko langileen %11,5 da hori; emakumezko langileen %19,3 eta gizonezkoen %6,6

langileen %19,3 eta gizonezkoen %6,6. Artikulu guztian zehar kontuan hartzeko elementua da sektore honetan lanean aritzen diren langileetako asko kontraturik gabe ari direla, eta, zentzu horretan, aipatutako datuek adierazten duten egoera ez dela errealitatearen gordintasuna guztiz islatzera heltzen.

Auziaren garrantziaren erakusle bezala har dezakegu agenda politiko publikoan behin eta berriro duen presentzia. Maila instituzional ezberdinetako adierazpenek beren proposamenen erdigunean kokatzen dute zaintza-lanen sektorea, eta aldarrikapenetan berdintasun-planetan, agendetan eta estrategietan itotzen dute gaira hurbiltzen saiatzen den hori. Auziak duen garrantziari pisurik kentzeko inolako asmorik izan gabe, bistakoa da honen eduki politikoa ez dela hauteskunde-propagandako orrietan agortzen, eta, zentzu horretan, beharrezkoa dela alor horretan aurkitzen den errealitateari begirada sakonago bat botatzea. Helburu hori ortzi-mugan, abiatu gaitezten egoera orokorra testuinguruan jartzetik.

MENPEKOTASUNA MENDEBALDEKO GIZARTEETAN: ZAHARTZEN ARI DEN GIZARTE-EREDU BAT


Zenbait fenomenoren nahasketa tarteko, Mendebaldeko gizarteetan gero eta gehiago dira menpekotasun-egoeran dauden pertsonak. Zahartze-prozesuaren ondorioz (bizi-itzaropena izugarri handitu da azken hamarkadetan, jaiotza-tasak beherantz egin duen bitartean), egun, Mendebaldeko herrialdeetako (fenomeno hori era adierazgarrienean bertan ikusten delako) adin-piramideek errealitate berri bat adierazten dute, inoiz erakutsi gabekoa. Mendearen hasieratik, 65 urtetik gorakoen proportzioa %88 igo da AEBetan, %110 inguru Europan eta, are, hirukoiztu egin da Txinan. Zentzu horretan, mendekotasunen bat duten pertsonen kopurua izugarri hazi dela esan daiteke, are gehiago gainontzeko adin-tarteetako pertsonen kopuruaren jaitsierarekin harremanetan jarriz gero. 2015ean, mundu mailan, 2100 milioi pertsona mendekotasun-egoeran zeudela kalkulatu da, eta aurreikusten da kopuru hori %10 igoko dela 2030erako.

Kontrara, zaintza-jarduerak aurrera eramaten dituzten sektore sozial “naturalak” (nolabait esatearren) uzkurutzen ari dira urtez urte. Familia-ereduaren transformazioaren elementua gehitu dakioke horri, zentro inperialistako herrialdeen kasuan familia nuklearren eta tamaina handiko familien ereduak gero eta murriztagoia den garai batean aurkitzen baikara, zalantzarik gabe. Espainiako Estatuaren kasuan, gaur-gaurkoz, pertsona bakoitzak 1,5 eta 2 pertsona artean zaintzen dituela kalkulatu da, batez beste. Emakumeen kasuan, zifra hori bikoiztu egiten da; bestalde, zaintzaren sektorean lanean ari diren langileen kopuruak ere auziaren garrantziaz ohartarazten gaitu, Europa mailan sektorean lan egiten ari diren kopururik altuenetako bat baita. Zaintza-lanen zatirik handiena etxean gauzatzen den arren, etxeko zerbitzuek eta egoitzek, besteak beste, presentzia handia daukate sektore honetako jarduerari dagokionez; adibide bat ematearren, EAEko etxeen ia %15ek etxeko eta zaintza-lanak betetzeko zerbitzuak kontratatzen dituztela kalkulatu da. Hala ere, familiako zaintza-espaziotik edo eremu formaletatik kanpo dauden hainbat jarduera ere biltzen ditu sektore horrek. Eremu formal horretan sartzen dira zaintzaren sektorean lan egiten duten pertsonak, hala nola hezkuntzan, osasungintzan eta gizarte-lanetan; etxeko lanetan aritzen diren pertsonak; eta beste zaintza-jarduera batzuekin harremanetan dauden jardunbideak, besteak beste. Egun, ideia bat egiteko, etxeko langileak mundu mailako langileen %2 inguru dira (ikerketa batzuek zifra hori hirukoiztu egiten dute); zaintzaren sektoreko bestelako lanbideetan enplegatutako pertsonak, hala nola sukaldariak edota garbitzaileak, beste %2 dira, eta aipatutako espazio “formal” horietatik kanpo geratzen diren langileak beste %1 inguru.

Herrialdearen nolakotasunaren araberako alde handiak badiren arren, egitate bat da, egun, zaintza-lanek denbora (edo diru) inbertsio handi bat dakarkiola familiei. Norabide hori markatzen du, behintzat, zaintza-lanez arduratzearren soldatapeko lanaren dinamikatik kanpo geratzen diren pertsonen kopuruak, koiuntura ekonomikoaren kausen ondorioz (lana aurkitu ezina) soldatapeko espazioetatik kanpo geratzen diren pertsona kopuruaren bikoitza baita kasu edo testuinguru guztietan, lekuan lekuko espezifikotasunak espezifikotasun. Zentro inperialistako herrialdeetan zifrak murriztagoak dira, maila sozioekonomiko altuagoko geruzen existentzia tarteko, klase-estratu altuenetako pertsonen zaintza-lanak besterentzearen aldeko apustu bat egiten dutelako (zerbitzu publikoen edo pribatuen bitartez). Joe- ra horrek maila sozioekonomikoaren araberako zaintza-ereduen existentzia adierazten du, zentro inperialistako herrialdeen baitara ere estrapola daitekeena. Maila sozioekonomiko dirudunetako pertsonen, aipatu bezala, zaintza-lanak besterentzeko ohitura daukate, zerbitzu publikoen edo pribatuen bitartez. Langile-klaseko sektore zanpatuenentzat, ostera, zailagoa da zerbitzu pribatuetarako sarbidea izatea; hain justu, lehen mailako beharrian bat izan arren, merkatuaren logikak zeharkatutako esfera bat izaki, bakoitzak duen diru kopuruak erabakitzen baitu produktu horietarako ateak irekitzea. Jarraian aipatuko den zerbitzu publikoen dekadentzia orokorraren testuinguruan, egitate honek klase-izaera garbiko auzi bilakatzen du zaintza-lanen sektorea.

Ongizate Estatuaren desegiteak gogor kolpatu du sektore publikoaren erantzuteko gaitasuna, izan zerbitzu publikoen kalitatea halabeharrez jaitsi delako, edota izan sektore publikoak betetzen duen espazioaren barruan sektore pribatuak gero eta garrantzi handiagoa duelako

Beste alde batetik, krisiak, zentro inperialistaren dekadentziaren eskutik, beste fenomeno orokor bat gehitu dio horri guztiari. Ongizate Estatuaren desegiteak gogor kolpatu du sektore publikoaren erantzuteko gaitasuna, izan zerbitzu publikoen kalitatea halabeharrez jaitsi delako, edota izan sektore publikoak betetzen duen espazioaren barruan sektore pribatuak gero eta garrantzi handiagoa duelako (pribatizazioen eskutik edo zenbait funtzioaren azpikontratazioen eskutik gertatu da hori). Zerbitzu publikoetatik egiten den eskaintza baino handiagoa da eskaria, eta horrek hutsune nabarmen bat eraginda, beharrezana bertute bilakatu dute sektore pribatuko enpresek. Hori hainbat erakusletan hautesman daiteke. Sektorean lan egiten duten langileen kopuruaren hazkundeari begiratzen badiogu, adibidez, sektore publikoan aritzen direnen kopurua azken 20 urteetan %25 inguru igo da, eta, aldiz, sektore pribatukoaren kopurua %250 inguru. Finantzazioari dagokionez ere errealitate bera ikus dezakegu: 2020rako, finantzazio publikoaren %59 baino ez zen erresidentzia publikoetara bideratzen (1994an %75ekoa zen proportzio hori; enpresa pribatuek jasotako diru publikoaren bilakaera kontrako izan da).



Horrek hiru ondorio nagusi izan ditu zerbitzu publikoetatik kanporatuak izaten ari diren langile-klaseko kideentzat. Alde batetik, jasotako zerbitzuen kalitatearen jaitsieraren sakontzea ikus daiteke, enpresa pribatuek irabaziaren maximizazioa baitute helburu lehen instantzian, eta, norabide horretan, ohikoa baita zerbitzuen edota arretaren kalitatea jaitea (ratio altuagoak, lan-baldintza orokor eskasagoak; aipatzekoa da aurretik aipatutako langileen kopuruaren hazkundera gertatu bitartean langileen soldatetara bideratutako gastua %20 inguru baino ez zela igo). Beste alde batetik, familia askok haien beharrezko erantzuteko zerbitzu pribatuetara jo behar izan dute, sektore publikoaren eskaintzak ez baitu eskaria asetzeko besteko indarrik (hori aspalditik da oso nabarmena periferiako herrialdeetan, haietan emakumeen lanpostu ohikoena etxeko langile izatea baita, baina gero eta nabarmenagoa ari da bihurtzen zentro inperialistako herrialdeetan ere). Azkenik, sektore honetan lan egiten duten pertsonen lan-baldintzen kaskartzea aipa daiteke (atal hau aztertzea beranduago sartuko gara). EAEko eta Nafarroako adinekoen egoitzen kasuan, adibidez, publiko-pribatu alde alderantzikatu egin da azken urteetan, eta, egun, egoitzen %9 eta %3 baino ez dira publikoak, hurrenez hurren. Etxez etxeko zerbitzuaren kasuan, nahiz eta zerbitzua bera udalen eskumena izan, orokorrean azpikontrataziora jotzen dute udalek. Hasiara batean haiek jarritako neurrien barruan lan egitera behartuta egon arren, sektore pribatuekiko dependentziak negoziazio-indar handia ematen die enpresei haiek nahi dituzten baldintzak ezartze aldera.

LAN-BALDINTZEN ALORREAN, MISERIA NAGUSI

Testuinguruan jarri ondoren, errepara diezaiegun zaintza-lanen sektoreko lan-baldintzei. Tesi orokorra da sektore prekarizatua eta gutxietsia dela zaintza-lanena. Bigarren mailako lantzat jotzen dira orokorrean gizarte kapitalistaren barruan errotuta dagoen lan-banaketa ereduaren ondorioz, zeinetan, eskuzko lanaren eta lan intelektualaren arteko bereizketa bat egoteaz gain, eskulanaren kualifikazioak eta prestakuntzak garrantzia handia hartzen baitute balioa determinatzeko momentuan. Hala ere, ideia orokor horretaz gain, badago zer esan sektore honetan enplegatutako langileek pairatu behar dituzten lan-baldintza tamalgarrien inguruan. Edozein kasutan, sektore honetako lan-baldintzak zehaztasunez definitzeak zenbait zailtasun dakartza. Izan ere, zaintza-lanen sektoreaz hitz egiten dugun arren, zaku honek errealtate oso ezberdinak barne hartzen ditu. Lan zehatzei dagokienez, aniztasun handia dago, alde batetik: ez da gauza bera, nahiz eta antzeko-

tasun batzuk edo ezaugarritze orokor bat partekatu, etxeko zerbitzuan aritzea edo garbitzaile izatea. Lan zehatz bakoitzaren barruan, bestalde, ez da gauza bera, jakina, azpikontratatutako enpresa batentzat lanean ari den institutu bateko garbitzailea izatea edo familia batentzat *beltzean* jarduten duen etxeko langile bat izatea. Hori horrela, zaintza-lanen arloan dagoen aniztasunak korapilatsu bilakatzen du ariketa bera. Gainera, sektoreko jardueren zati bat espazio formaletatik at gauzatzeak, jarduera ekonomiko formalen garbitasun burokratikoetik at, eta, beraz, gizarte kapitalistaren askatasun eta berdintasun faltsuaren defendatzaileek ez ikusiarena egiten dieten espazio horien barruan, erraztasunak eman baino gehiago, ilundu egiten du kontua. Gure kasuan, azken horietan zertratuko gara bereziki, nahiz eta, berriro ere, adieraziko diren elementuen ezaugarri orokorren arloan antzekotasun asko aurki daitezkeen zaintza-lanen baitako estratifikazioan (eta nahiz eta, tarteka, erreferentzia orokorragoak ere egingo ditugun).

Oso altua dela zaintzaren sektorean kontraturik gabe lan egiten ari diren pertsonen zenbatekoa. 2021eko Oxfam-Intermonen ikerketa baten arabera, Espainiako Estatuan 70.000 emakumezko inguru daude egoera administratibo irregularrean sektore honetako lanpostuetan (beste ikerketa batzuek 215.000 pertsonara igotzen dute kantitate hori)

Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LNE) definizioaren arabera, “zaintza-ren ekonomiak lan-jarduera ordainduen zein ordaindu gabeen sorta zabal bat barne hartzen du, ongizate fisiko, psikologiko eta sozialerako beharrezko zaintza zuzena zein zeharkakoa ematera bideratuta daudenak, bereziki, zaintza-behar espezifikoak dituztenei zuzenduak, hala nola umeak, adineko pertsonak, desgaitasunen bat edo gaitortasunen bat duten pertsonak zain-tzera bideratuak”. Aldi berean, gogoan ditu “elkarrekintzan aurkitzen diren bi jarduera mota: zuzeneko zaintza-jarduerak, pertsonalak eta harremanei loturikoak, haur bati jaten ematea edo gaixorik dagoen ezkontidea zaintzea kasu, eta zeharkako zaintza-jarduerak, besteak beste sukaldian egitea eta garbitzea”. Edozein kasutan, sektorean gauzatzen diren lanen ezaugarriek inpaktu handia dute lan edo jarduera horien erregulartasunean, eta egozten zaie irregulartasun edo informaltasun horrek eragin zuzena dauka lan-baldintza orokorretan zein lan-baldintza horiek kontrolatzeko aukeran.

Zaintza-lanen espazio formalean garatzen diren jardueren artean, etxe-ko zerbitzuetan lan egiten duten pertsonak dira lan-baldintza eskasak dituzten langileak. Lan horietan ohikoak dira aldi baterako lanak, errotazio-tasa altua eta lanaldi partzialak. Edozein kasutan, zaintza-lanen sektorean aurki daitekeen lan espezifikoaren estratifikazioaren barruan, zaintza-lanen esparru formaletik at aurkitzen diren lanpostuak oso ugariak dira, eta horietatik askok daukaten erregimen partikularra tarteko (kontraturik gabe edo *beltzean*), asko dira lan-baldintza eskas horietan lan egitera behartuta dauden pertsonak.

Kontratazioak eta soldatek era oso esplizituan jasotzen dute aurreko parrafoan aipatutako egoera. Lehen alderdiari dagokionez, aipatu beharra dago oso altua dela zaintzaren sektorean kontraturik gabe lan egiten ari diren pertsonen zenbatekoa. 2021eko Oxfam-Intermonen ikerketa baten arabera, Espainiako Estatuan 70.000 emakumezko inguru daude egoera administratibo irregularean sektore honetako lanpostuetan (beste ikerketa batzuek 215.000 pertsonara igotzen dute kantitate hori). Etxeko langileen kasuan, langileen %30 inguru modu informalean aritzen dira (kasuen erdia, gutxi gorabehera, egoera irregularean dauden atzerritarrek osatzen dute). Kontraturik gabe egoteak, *de facto*, langilearen eskubide guztiak desagertzea dakar; izan ere, kontratua izateak lanpostua erregularizatzen eta lan-baldintzak biltzen dituen heinean, kontratu baten faltan ez da ezer gertatzen, nolabait esatearren. Lehen aipatu bezala, alor honetako errealitatea aldakorra da zaintzaren sektoreak barne hartzen dituen lan eta langile mota ezberdinetan. Etxeko Langileen Asanbladak 2020an egindako txosten batean aipatzen zutenez, jasotako kontsulteren artetan, %75ek jarduten zuten baldintza ilegaletan jardunaldiari, atsedenera eta soldatari erreparatuz gero. Gainera, sektore honetako zenbait esparrutan izaten diren ahozko kontratuen proportzioa ere gehitu behar zaio horri; etxeko langileen kasuan %85ekoa da, adibidez. Hau da, nahiz eta *a priori* egoera bera erregularra izan, *a posteriori*, ohikoa da lan-baldintzetan aldaketa ezberdinak ezartzea “informalki”, langilearen zaugarritasun-egoera probestuta.

Sektore ekonomikoetako batez besteko zenbatekoetan jasotzen diren 10 euro gordineko, 4 euro inguru kobratzen dituzte etxeko lanetan ari diren pertsonak. Soldatapeko lanaren dinamikaren barruan dauden pertsonen pobrezia erlatiboa ia hirukoiztu egiten da langile horien artean; etxeko langileen %32 inguru pobreziaren atalasetik behera zeuden 2019an

Bigarren alderdiak ez du egoera askoz ere hoberik erakusten. Sektore honetan garatzen diren jardueren artean soldatarik altuenak dituztenak Espainiako Estatu mailako batez besteko soldatetik hurbil dauden arren, jardueren gehiengoa batez besteko maila horretatik behera ordaintzen da. Sektore pribatuarentzako lan egiten duten langileen soldata maila sektore publikokoa baino txikiagoa da. Espainiako Estatuaren kasuan, zaintzaren sektoreko langileen urteko batez besteko soldata 18.876 eurokoa zen 2020an, eta, aldiz, batez besteko soldata orokorra 26.000 eurokoa. Etxeko langile bezala kontratatutako pertsonen kasuan, soldataren alorrean ikusten ditugun baldintzak oraindik eta miserableagoak dira, lanbide honetan ari diren langileen %66k 1.000 eurotik beherako soldata gordina baitute (sektoreko beste lanpostuetan ere ohikoa da batez besteko soldaten langa hori behetik pasatzea; erresidentzietako langileen kasuan, adibidez, 1.444 eurokoa da batez besteko ordainsaria, gutxieneko soldata baino baxuagoa). Sektore ekonomikoetako batez besteko zenbatekoetan jasotzen diren 10 euro gordineko, 4 euro inguru kobratzen dituzte etxeko lanetan

ari diren pertsonak. Soldatapeko lanaren dinamikaren barruan dauden pertsonen pobrezia erlatiboa ia hirukoiztu egiten da langile horien artean; etxeko langileen %32 inguru pobreziaren atalasetik behera zeuden 2019an.

Bestalde, kontratu horien iraupenari dagokionez, 2021eko ikerketa baten arabera, sektoreko langileen %55 aldi baterako kontratuekin ari ziren lanean (Espainiako batez besteko orokorra %22koa da) eta kontratuen %24tik gora partzialak eta zatitutakoak dira (zenbait ikerketak zifra hori bikoiztu ere egiten dute). Etxeko langileen kasuan, %60tik gora ari dira kontratu partzialekin lanean, kasu gehienetan, haien borondatea hori ez izan arren. 2018an lanaldi partzialeko kontratuekin lanean ari ziren pertsonen %75 inguru emakumezkoak ziren, eta garbiketa-lanak, ostalaritzako lanpostuak eta merkataritza-lanen sektoreak ziren lan partzialen ehuneko handiena zutenak.

Aipatutako elementuen isla argia da enplegu kantitatearen eta enplegatu kantitatearen arteko harremana. Sektore ekonomiko gehienetan ohikoena pertsona bakoitzak lanpostu bat betetzea da; kontrara, zaintza-lanen sekto-

rean, lan-kontratuen nolakotasunari eta kontratu horietako baldintzei lotuta, handiagoa da lanpostu kopurua (%35 handiagoa) lanean ari diren pertsonen kopurua baino. Hau da, lanean ari den pertsona bakoitzak lanpostu bat baino gehiago betetzen ditu, batez beste. Hori aurretik aipatutako lan-baldintza ezberdinen arteko nahasketaren ondorio zuzena da, sektore ekonomiko honetako soldatek eta lan-kontratuen partzialtasunak inpaktu zuzena baitute errealitatea eratzeke momentuan. Lanpostu kopuruak jardunaldi osoko lanpostuekin duen harremana %33koa da, hau da, dauden lanpostuak lanaldi osoko lanpostu bilakatuko bagenitu, kopurua hiru aldiz murriztuko litzateke; etxeko langileen kasuan, lau langiletik batek 10 ordu baino gutxiago egiten ditu lan astean, eta erdiak baino gehiagok 20 baino gutxiago. Lan-sektore honetan enplegatutako langileen baldintzak tarteko (soldata baxuak, lanaldien partzialtasuna eta lanpostuen irregulartasunaren eskutik eratortzen diren askotariko gehiegikeriak), beren bizitzaren erreproduzioa bermatzeko, lanpostu ezberdinetan lanean aritzera behartuta daude kasu askotan.

Urtea amaitzen denerako etxeko langileek lan egiten duten ordu kopurua kalkulatu gero, irakasleen urteko jardunaldiaren hirukoitza da ia, eta Bizkaiko Metalgintzako hitzarmen kolektiboan jasotako lanaldia baino %45 handiagoa


Badago bestelako kasu batzuetan sartzerik. Asteko lanaldiaren iraupe-nari dagokionez askotarikoak aipa daitezkeen arren, etxeko langileen gehien-goak 45 orduetik gorako lanaldiak izaten ditu, eta, kasu batzuetan, 90 orduetik gorakoak izatera heltzen dira. Lanaldia, gainera, txandakakoa izaten da kasu askotan (asko errotazio-erregimenean), eta gaueko eta asteburuetakoko ordutegietan aritzea nahiko ohikoa izaten da. Urtea amaitzen denerako etxeko langileek lan egiten duten ordu kopurua kalkulatu gero, irakasleen urteko jardunaldiaren hirukoitza da ia, eta Bizkaiko Metalgintzako hitzarmen kolektiboan jasotako lanaldia baino %45 handiagoa.

Bestalde, lanordu horien nolakotasunari errepara diezaiotegu. Erresidentzien kasuan, adibidez, langile bakoitzak egoiliar bakoitzarekin egunean igarotzen duen denbora-tartea ez da bi ordura iristen. Pertsona bakoitzari 10 minutuko denbora baino ez zaio eskaintzen artatzen den aldiro, langile bakoitzak hamabost eta 35 egoiliar artean zaindu behar baititu batez beste (eguneko tartearen arabera). Etxeko langileen kasuan, nabarmentzekoa da (aipatutakoez gain) lan egiten ari diren bitartean atsedendaldirik ez izatea (Etxeko Langileen Asanbladaren arabera, %20 inguruk ez dute etxebizitzatik irtekeko eguneko baimenik eta %27k ez dute asteko atsedunik), eta horri, gainera, jardunaldien legez kanpoko luzapena gehi dakioke (%40 inguru aurkitzen dira kasuistika horren barruan). Garbitzaileen kasuan, azpikontratetan lan egiten duten langileek metro karra-tu kopuru bikoitza garbitu behar dute 2.400 eguneko, sektore publikoan aritzen direnekin alderatuta. Jangeletako langileen kasuan, lanaldiak oso murriz-tzak dira, eta sasoikakoak.

Lanean ari diren bitartean pairatzen dituzten baldintza horiei prestazio sozialetan jasotzen duten diru kantitatea ere gehi diezaiotegu. Behin betiko behin betiko ezgaitasunagatik, erretiroagatik eta alargun gelditzeagatik ematen diren prestazioei dagokienez, sektore honetako maila baxuenetan lan egiten duten langileek jasotzen dituzten prestazioak, batez beste, Gizarte Segurantzako erregimen eta sistema guztien artean baxuenak baitira. Sektoreko langileen %65ek gutxienezko osagarriak jaso behar izaten dituzte erretiroa hartzarekin batera (jasotako diru kantitatea ezarritako minimora heltzen ez denean jasotzen den osagarri bat), eta pentsioaren %32 hartzen du osagarri horrek. Hori, beste gauza batzuen artean, sektoreko erregimen bereziagatik da, Gizarte Segurantzaren guztiz integratu gabe dagoen eta Arrisku Laboralen Prebentziorako legetik kanpo geratzen den sektorea izaki. Edozein kasutan, aipatu beharra dago sektore honetan lan egiten duten hamar langiletik zortzi Gizarte Segurantzaren izena eman gabe daudela.

Baldintza politikoen kasuan, hainbat elementu aipa daitezke. Sektore ekonomiko honetako baldintza ekonomikoek zein enplegatutako langileen profil sozioekonomikoak oztupoak jartzen dizkiote eskubide politikoen defentsa antolatuari. Lanaren nolakotasunak,

bere aldetik, langileak atomizatzen ditu. Sektoreko lan gehienak bakardadean eramaten ditu aurrera langileak, eta, eta lankideekiko kontaktua, hala-korik baldin badago, oso mugatua da (harreman horretan sartzen diren langile kopuruari zein harreman horren iraupenari dagokienez). Aldi berean, lan-baldintzen arloko prekaritateak traba handiak jartzen ditu antolakuntza politikorako, soldata baxuek edota lanaldien iraupen luzeak zailtasun handia baitakarte lan-karga, familiari loturiko karga eta konpromiso politikoa uztartzeko. Gainera, langileen debaluazioa eta sektoreak funtzionatzeko duen era tarteko, etengabeko kalera-tze-mehatxupean lan egin behar izaten dute. Azkenik, lan-sektore honetan nagusi den irregulartasun-egoerak edota lan horietatik asko eremu formale-tatik at garatzeak inpaktu garbia dute langileen baldintza politikoen garape-nean, egun, zaugarritasun gehigarri bat baitaukate sindikatuak heltzen ez diren txokoetan gauzatzen diren lan-jarduerek, kontuan harturik sindika-tuek antolakuntza mailarik oinarritz-koena eta ohikoena adierazten dutela. Etxe partikularretako langileen kasuan, adibidez, langileen %3,7 baino ez dau-de sindikatuta, eta Espainiako afiliazio orokorraren tasa %13,7koa da (Europa iparraldeko herrialdeetan %65etik gorakoa da).



SEKTOREKO LANGILEEN ERRADIOGRAFIA BAT

Ikusten diren lan-baldintzez gain, komenigarria da lan-sektore honetan enplegatutako pertsonen dituzten ezauzgarri orokorreari behatzea, elementu horien arteko sintesitik osatzen baita auziaren gaineko ikuspegi orokorra bat.

Lehendabizi, zaintza-lanen sektorearen inguruan hitz egiten dugunean (orokorrean zaintza-lanekin gertatzen den bezala, era ere garbiago batean) sektore ekonomiko feminizatu baten inguruan hitz egiten ari garela esan daiteke. Zaintza-jardueren barruan, esparru formaletako lanen kasuan, emakumeak dira langileen %75 inguru; etxeko langileen artean %90ekoa da emakumezkoen proportzioa, eta usate da zaintza-lanetan aritzen den biztanleria migratua ia %95era heltzen dela. Baina ez hori bakarrik: esparru horretan lan-baldintzarik prekarioenak dituzten jardunbideetara hurreztatzen goazen heinean, hazi egiten da emakumeen proportzioa. Espainiako Estatuan 600.000 pertsonak egiten dute lan etxeko langile bezala eta %90 inguru dira emakumeak. Hego Euskal Herrian lan egiten duten emakumeen %5,6 dira sektore horretako langileak (90.000 inguru); 100.000 biztanleko, 1.200 langiletik gora. Lanean ari diren emakumeen %10ek zaintza-lanen sektorean egiten dute lan. Beraz, sektorearen izaera devaluatuaren iturburuetako bat aurkitzen dugu hemen, emakumea subjektu sozial devaluatua baita maila ekonomiko, sozial zein politikoan, bizitzako hamaika esparrutan gordetzen zaion posizioa tarteko. Aldi berean, po-

sizio horrek berak (non kokatzen den egunerokotasuneko harreman ekonomiko eta sozialetan) erreproduzitzen du bere posizioa gako berdinetan. Adibide bat jartzearren, erresidentzietan lan egiten duten langileek (sektore nabarmen devaluatu eta feminizatu bat) soldata baxuagoa dute, esaterako, eraikuntzaren sektoreko lanpostuetakoek baino, kasu batzuetan baita lanpostu bera beteta ere (biltegiko langileek, peoiek edota garbitzaileek, adibidez). Hego Euskal Herrian, %40tik gorakoa da egoitzetako eta eraikuntzako soldaten arteko aldea, bi salbuespenekin: aldea zertxobait txikiagoa da sektore desberdinetako peoi arrunten artean, baita garbitzaileen artean ere. Honaikoa ere esanguratsua da: egoitzetako lan guztien artean, garbitzaileak dira *de facto* soldatarik baxuena jasotzen dutenak. Alor horri, gainera, emakumeek gaur-gaurkoz maila sozialean betetzen dituzten zaintza-lanen karga gehitu behar zaio, lanpostuan zaintza-lanetan aritzeaz gain, lanpostutik kanpoko zaintza-lanetako orduen ehunekorik handiena emakumeen gain erortzen baita.

Bestalde, Oxfamen 2021eko ikerketa horren arabera, sektore honetan lan egiten duen langileriaren %50 inguru atzerritarra dela kalkulatu da (EAEn, esate baterako, %33 inguru). Gainera, lan-erregimenaren araberrako desberdintasun nabarmenak begitandu daitezke: barneko erregimenean lan egiten duten langileen artean pertsona migratuen proportzioa %90etik gorakoa da. Etxeko langileen kasuan 164.838 dira Etxeko Langileen Sistema Berezia-

afiliatuta dauden emakume migratuak (afiliatuta dauden langileen %45 inguru). Eta umeen zaintzan enplegatutako emakume migratuen proportzioa oraindik eta handiagoa da. Datua bere sakontasunean baloratzeko, dena den, komenigarria da sektorean egoera irregularrean lan egiten duten pertsonen inguruko informazioa gehitzea. Kualifikaziorik gabeko eta esfera formaletatik at geratzen den alor bat izaki, emakume migratu askoren kasuan, lan-merkatuak sarbide bat ahalbidetzen diete askotan jardunbide horiek. Egun, lan-sektore guztien artean, egoera irregularrean dauden langile migratuen proportziorik handiena duen sektorea da zaintza-lanena: %30 baino gehiago dira, zeina askoz zifra handiagoa baita lehen sektoreko migratuen ehunekoaren (%6) edota eraikuntza-lanetakoaren (%9) aldean. Zentzu horretan, aurreko parrafoan aipatutako elementuak erakusten zuen egoeraren antzeko bat ikus dezakegu. Hau da, sektorean landar migratuaren proportzioa handia izanik ere, zaintzaren sektorean dagoen lanbideen estratifikazioaren barruan behera egin ahala, gero eta emakume migratu gehiago topatzen ditugu lanean. Irregularitasun horrek, gainera, gorpil zoro efektu bat dauka langile horiengan. Egoera irregularrean egonik eta beharrezko beharrez, langileklaseko sektore proletarizatuenaren parte diren pertsona horiek behartuta ikusten dute euren burua baldintzarik eskasena dituzten lanpostuak eta lanbaldintzarik prekarioenak onartzera, baina baldintza horietan lan egiteak, aldi berean, nabarmen zailtzen du haien egoera erregularizatzea. Baldintza horiekin, urte luzetako prozesu bilakatzen da erregularizazioa; izan ere, errotze soziala eta laborala lortzeko (halako lur eskasetan errotzea hain zaila izaki), beharrezkoa da bizitoki- eta lan-baime-na lortzea.

**Lanean ari diren emakumeen
%10ek zaintza-lanen
sektorean egiten dute lan**

Bestalde, Oxfamen 2021eko ikerketa horren arabera, sektore honetan lan egiten duen langileriaren %50 inguru atzerritarra dela kalkulatu da

Gainera, estatu burgesaren marko juridikoetako neurri batzuek, hala nola formakuntzaren bidez errotze-agiria lortzeak, indar handiagoz lotzen dituzte profil horretako langileak lan-sektore horietara. Eskulan-eskari handiko sektoreetara sartzeko formakuntza espezifikoko arindu egiten ditu aipatutako prozedurak, baina zaintza-lanetan sartzeko formakuntzara bideratzen ditu erregularizazioa helburu duten langile horiek. Aldi berean, behin betikoa izan ordez baldintzapekoa izaten denez aipatutako erregularizazioa, helburua lortuta ere, langileek behartuta ikusten dute euren burua jaten ematen dien eskuari musu ematera, baimen horiek mantentzeko. Soldatapeko lanaren dinamika lotuta jarraitu beste aukerarik ez daukate lortu berri duten egoera erregularra iraunarazteko. Zentzu horretan, baieztatu dezakegu estatu burgesak makilaren eta azenarioaren estrategia darabilela langile-klaseko sektorerik zaugarriekin, ohiko trikimailuekin: xantaia etengabe bat aplikatzen du haien biziraupenerako baldintza lan-sektore gutxietsienei eta kolpatuenei lotuz eta, horrela, haien zaugarritasuna legeztauz.

Aipatutako egoera orokorrak isla zuzena dauka sektore honetan ari diren langileen ikasketa mailan. Langile-klasearen sektorerik zaugarrienak biltzen dituen lan-sektore bat izaki, ohikoa da bertan lan egiten ari diren proletarioen profila ikasketa-prozesuaren hasierako maileri lotuta egotea. Era goiztiar batean lan-mundura sartzera behartuta egoteak inpaktu erabakigarria dauka ikasketa-prozesuaren luzapenean. Sektore honetan aritzen diren pertsonen %70ek bigarren hezkuntzako ikasketak dituzte eta %16k lehen hezkuntzakoak soilik, eta goi mailako ikasketetara sarbidea izan dutenak %14 baino ez dira.


Esan beharra dago, gainera, zaintzalanen sektorean enplegatuta dauden pertsonen arazo handiak dituztela lana eta familia-kargak era egoki batean kontziliatzeko. Kontuan hartu behar da, alde batetik, orokorrean, familia-kargaren zatirik handiena emakumeen gain jausten dela gizarte-mailan. Emakumezkoek, batez beste, gizonezkoek zaintzen duten pertsona kopuruaren bikoitza zaintzen dutela kalkulatu da (15 eta 64 urte arteko emakume bakoitzak batez beste 3,5 pertsona baino gehiago zaindu behar ditu). Gizonek, batez beste, egunean 4 ordu eskaintzen dizkiete etxeko lanei; emakumezkoek 2 ordu gehiago. Horri lan-baldintzen atalean aztertutako elementuak gehituz gero (lanaldi luzeak, partzialak, lanpostu bat baino gehiago izateko beharra, lan-karga handiko lanaldiak), zaintza-lanetan ari diren pertsonen duten eguneko kargak egunaren zatirik handiena hartzen duela konturatu gara. Horrek sekulako inpaktua dauka pertsona horien bizitzetan, aisialdirako eta atsedenerako denboran duen eraginaz gain (langile horien bizi-baldintzen okertze nabarmena dakarrena epe laburrean zein luzean), alor politikoan ere sekulako eragina baitauka.

ONDORIOAK

Zaintza-lanen sektorea, egun, bereziki debaluatutako lan-sektore bat da. Lan-baldintzen alorrean aztertu ditugun alderdien bidez, identifikatu dezakegu aldea handia dela beste lan-sektoreetako batez besteko baldintzeekin alderatuta. Hedatzen ari den proletarizazio-prozesuaren korrelatu gisa uler dezakegu prozesu hori, azken finean, krisi-testuinguruak beharrezko egiten baitu presioa langile-klasearen bizi-eta lan-baldintzei dagokienez. Modu ezberdinetan gertatzen da hori, eta proletarioaren geruza zaurgarrienen hedatze-prozesu bezala uler dezakegu artikuluan zehar aipatzen den lan-baldintzen hedatze-prozesua. Ekoizpen-indarren alorrean arrapaldan jazotzen ari diren aldaketek atek irekitzen dizkiote lan-indar ez kualifikatua potentzialki ekoizpenetik kanporatua izateari, eta horrek mehatxuegoera etengabe batean kokatzen du proletarioa. Prozesu hori era desberdinetan gauzatzen den arren, kondizio proletarioaren sakontzea, besteak beste, gutxietsitako lanbideen hedapenaren bitartez gertatzen da, baita lanbide horietako baldintzen kaskartzearen bitartez ere. Hirugarren sektorearen hedapenarekin batera, Mendebaldeko gizartei gradualki sortzen ari zaizkien behar espezifikoak (zahartze-prozesua zehazki, eta menpeko pertsonen areagotzea orokorrean) erantzuteko moldatzen da gizarte kapitalistaren ehun produktiboa. Prozesu horretan, lehen existitzen ez ziren merkatu-hobiak garatzeaz gain, existitzen zirenak moldatzen dira. Aldi berean, haien merkantilizazioan eta kontraesanetan sakontzen duen prozesu bat gertatzen da.

Prozesu orokor horren baitan uler daitezke, zentzu batean, zentro inperialistako ekonomien tertziarizazioa (errentagarriak ez diren sektoreen desegitea industrialia eta adar konkretu batzuen espezializazioa eta garapen basatia alde batean, eta hirugarren sektorearen hedapen basatia beste aldean) eta zaintzaren sektoreak azken urteetan hartu duen dimentsioa. Edozein kasutan, hori gizarte mailako prozesu moduan gertatzen den arren, prozesuaren izaera basatia sektore konkretu batzuetan grinatzen da bereziki. Lanaren banaketaren barruan, posiziorik debaluatuenak egokitu zaizkien lan-sektore eta lanpostuek era bereziki gogorrean pairatu behar izaten dute kondizio proletarioaren sakontze hori. Lehenagotik ere zaurgarriagoak ziren sektoreak izateaz gain, hau da, prozesuaren abiapuntua okerragoa izanik, horrek babesik gabe uzten ditu gizarte kapitalistaren basakeriaren aurrean. Gainera, langile-antolakuntzaren alorrean umezurtz ageri dira sektore horiek, izan forma politiko tradizionalen utzikeriagatik edo hutsaltasunagatik, izan horien izaera antiproletarioagatik (Burgesiaren Alderdiaren parte diren alderdi eta sindikatuen amaraun-sareak ez baitu inolaz ere sektore horien bizi- eta lan-baldintzen defentsa egiteko asmorik; ez, behintzat, horrek gizarte kapitalistaren joeren aurka joatea eskatzen duen artean), edo izan sektoreko langileriaren beharrei eta interesei erantzungo dien forma politiko independente baten gabeziagatik.





Sektorearen devaluazioak lan-baldintza eskasak inposatzea dakar; baldintza horiek beharraren beharrez onartzen ditu langile-klaseko sektorerik zaurgarrienak; baldintza horiek sektore horren egoera erreproduzitu baino ez dute egiten, eta baldintzarik prekarioenak eta langilerik zaurgarrienak biltzen dituen sektorea ere devaluatuena bilakatzen da

Harreman sakon bat dago, hala, sektore ekonomiko honen ezaugarri orokorren eta bertan lan egiten duten langileen ezaugarritzearen artean. Lan-sektore devaluatuen artean dago zaintza-lanena. Bigarren mailako lanbide izaera horrek harreman zuzena du lan-baldintzarik prekarioenak biltzen dituen sektorea izatearekin, eta langile profil zehatz bat erakartzen du, lanpostu horietarako sarbidea ia berehalakoa den heinean. Horrek faktoreen arteko elkarreagin bat du ondorio; langile-klaseko sektorerik zaurgarrienetako zati handi batek pairatzen duen sorgingurpila. Sektorearen devaluazioak lan-baldintza eskasak inposatzea dakar; baldintza horiek beharraren beharrez onartzen ditu langile-klaseko sektorerik zaurgarrienak; baldintza horiek sektore horren egoera erreproduzitu baino ez dute egiten, eta baldintzarik prekarioenak eta langilerik zaurgarrienak biltzen dituen sektorea ere devaluatuena bilakatzen da. Hori, aldi berean, auziaren alderdi espezifikoe-tan ikusten da. Eskulan feminizatua eta migratua enplegatzen du zaintza-lanen sektoreak; hala ere, (15 eta 64 urte arteko emakume bakoitzak batez beste 3,5 pertsona baino gehiago zaindu behar ditu) kopurua igo egiten dela ikusten dugu. Horrela, lan-baldintzen eta lan-sektorearen devaluazioaren artean dagoen logika erreproduzitzen da alor horri dagokionez ere. Lan-baldintza eta harreman konkretuen ondorio dira proletario profil ezberdinak, eta, aldi berean, proletariotzaren barruko profil konkretu bakoitzari leku ezberdin bat ematen zaio. Eta horrela behin eta berriro.

Proletalgoaren sektore zaurgarrienari eta kolpatuenari begira aritzeak, lehendabizi, auzia bere sakontasun eta errealitate zehatzean ulertzeko saiakeratik abiatu behar du. Zaintza-lanen lan-esparruari eta bertan lan egiten duten pertsonen alternatibaren bat eskaintzekotan, gako erradikal eta apurtzaileetan egin beharko da derrigor

Azkenik, auziari ematen zaizkion aterabide politikoak aztertu beharko lirarteke. Nabarmena da mundu mailako dinamika kapitalistaren ziklo zehatz bat amaitzeak dekadentzia-prozesu batean murgildu dituela historikoki zentro inperialistako potentzia tradizionalak izan direnak. Baldintza historiko horien ikur nagusia zen Ongizate Estatua eta, zentzu berean, bere euskarri edo zutabe ziren horiekin batera amiltzen ari da. Hala ere, Burgesiaren Alderdiaren ezker hegala osatzen duten alderdiek zein sindikatuek tematuta segitzen dute: haien atzamarren artetik erortzen ari diren zatiei heltzen saiatzen ari dira, iraganean izan zen horren oroitzenaren bista galdu gabe. Dena den, historiak aurrera egin izanak edukiz hustu du ezkerrearen maskor iraultzaile edo aurrerakoia, eta erretorika baino ez du utzi bere lekuan. Kontrara, inoiz baino esplizituagoa da alderdiek, sindikatuek eta abarrek gizarte kapitalistaren mantentzean duten funtzioa; hau da, haien izaera antiproletarioa. Gizarteko alor ezberdinetan era ezberdinetan adierazten bada ere, zaintza-lanen alorrean ere bere era konkretuan adierazten da egitate hori. Norabide horretan, ezkerreko alderdi aurrerakoien

proposamenek talka egiten dute etengabe errealitate gordinarekin, auzia behar bezala ulertzeko ezintasunagatik eta hari eusteko moduaren antzutasunagatik edo norabideagatik beragatik, besteak beste.

Haien pentsamendu- eta jardun-markoa gizarte kapitalistaren jokorauei eta bere mekanismo eta espazioei lotuta egoteak aterabideak marko horren marjinetan planteatzea eragiten du; kasu honetan, horren emaitza da zerbitzu publikoen defentsa itsua, zaintza-lanen publikatzea eta profesionalizazioa. Sektore pribatuak sektore publikoaren aldean irabazi duen pisuaren kritika bat egiten dute alde batetik, esferatik haren ezintasunak tarteko edo erabaki politiko kontzientze baten ondorioz irtendako esparruak Estatuaren kontrolpera itzultzeko asmoz, galdutako Ongizate Estatu hori nolabait berreraikitzeke esperantzaz. Alor horrekiko egiten duten proposamena ere ageri zaigu, bestetik, aipatutako gakoetan pentsatzen eta gauzatzen dena. Zaintza-lanen debaluzio estrukturala, zeina gizarte kapitalistaren funtzionamenduaren ondorio zuzena baita, dekretu eta erreforma zehatzen bitartez konpontzeko nahian adierazten da hori. Norabide horretan, bi elementu nagusi azpimarra daitezke.




Alde batetik, publiko-pribatuaren arteko dikotomia faltsua. Nahiz eta egia izan sektore ekonomiko horretan hobeak direla sektore pribatuko lan-baldintzak eta eskaintako zerbitzua, auzia bera edo aurkitzen den ñabardura oro ez da borondatearen ondorio. Zentzu horretan, ez da borondatez konpontzen. Sektore publikoen dekadentzia baldintza historiko konkretu batzuen agortzeari lotuta dago eta, zentzu horretan, zaila da konpontzen dekadentzia horren kausa diren korrante historikoen



alde (kasu gehienetan) edo kontra (inozokeriaz, indarge) arraun egiten. Zentro inperialistako potentzia tradizionalen dekadentziak eta Ongizate Estatuaren desegiteak aukera paregabe bat dakarte lehenago aipatutako sektore pribatuko hainbat eskurentzat, eta, edozein kasutan, txanpon beraren bi aurpegiak dira horiek: batak bestea osatzen du. Beste alde batetik, sektore ekonomiko honetan lanean ari den proletalgoaren ikuspuntuari buruz hitz egin beharko genuke. Artikuluan zehar azpimarratu da zer esan nahi duen lan- eta bizi-baldintzen alorrean, egun, zaintzaren sektoreko langile izateak: proletalgoaren barruko sektorerik zanpatuena izatea, etengabe erreproduzitzen dena. Zentzu horretan, proposamen politiko horiek *de facto* kanpoan uzten duten gizartearen zatiari hitz egitearen itxurak egiten dituzte. Egoera irregularrean eta kontraturik gabe egoteak, ozta-ozta bizitza erreproduzitzeko soldata bat izateak,

bizitza pertsonala eta laborala uztartzeko aukerarik ez izateak, ikasketetarako sarbide mugatua izateak eta abarrek definitzen duen langile-klasearen zatiaren inguruan ari baikara, finean. Eta, zentzu horretan, egun egiten den publikatzearen eta profesionalizazioaren aldeko apustuak kanpoan uzten duen langile-klasearen zati handi horretaz. Auzia lantzeko modua ezin da abiatu auziari ezikusiarrena egitetik, horri era eraginkor batean erantzuteko asmorik badu behintzat. Proletalgoaren sektore zaugarrienari eta kolpatuenari begira aritzeak, lehendabizi, auzia bere sakan-tasun eta errealtate zehatzean ulertzeko saiakeratik abiatu behar du. Zaintza-lanen lan-esparruari eta bertan lan egiten duten pertsonen alternatibaren bat eskaintzekotan, gako erradikal eta apurtzaileetan egin beharko da derri-gor. Eta hori proletalgoaren antolakuntza politiko independentearen eskutik etorriko da, etortzekotan. ●





HISTORIA
ERREPORTAJEA

**Erregimen
komunistetan
emakumeak zaintza-
lanetatik askatzeko egin
zituzten proposamenak
aztergai**

*

Kiara Angulo



Marxek defendatu zuenez, emakumeen askapena gauzatzeko beharrezkoa zen emakumea ekoizpen sozialaren parte izatea eta klase-esplotazioa eta etxeko esklabotza deuseztatzea, etxeko lanak eta haurren zaintza sozializatuz ^[1]



Marxismoaren oinarrietatik dator emakume langilea prozesu iraultzaileen txertatzearen beharra; ameskeriak izan dira emakume langilearen parte-hartzerik behar izan ez duten iraultza sozialak, osotasunaren eraldaketa erradikalik gabe emakumea aska daitekeela pentsatzea ameskeria den era berean.

Zentzu horretan, eta XIX. mende amaierako eta XX. mendeko testuinguru sozial, politiko eta ekonomikoa aintzat hartuta, urgentziatzko zeregina izan zen garaiko mugimendu sozialistentzat emakume langilearen antolakuntza politikoa nola gauza zitekeen pentsatzea. Izan ere, industrializatutako herrialdeetan emakume langilea une horretan atera zen lehendabizikoz eremu pribatutik, hau da, etxeko esparrutik, eta bizitza publikoan parte-hartzen hasi. Urte haietan, industria berriak garatzen ari ziren (eta maiz, industrian lanean ari ziren gizonezkoak gerrara joan behar izan ziren), eta horrek lan-indarraren beharra handitu zuen. Horrela, emakume langilea ekoizpen sozialean txertatu zen, “karga bikoitz” batekin; bere lan-indarra saltzera behartua zegoen aldi berean, eremu pribatuko zaintza-lanak bere gain erortzen ziren oraindik ere.

Emakume langilea ordura arte eremu pribatuan isolatuta egon izanak ondorioak izan zituen haren antolakuntza politikoa sustatzeko ahaleginetan. Izan ere, subjektu hori politikoki hezi behar zen kontzientzia hartu eta borroka politiko iraultzailera batu zedin. Alderdi iraultzaileentzat helburuak, beraz, argiak ziren: iraultza soziala antolatu nahi bazen, emakume langileak borroka politikora batu behar ziren. Horretarako, beharrezkoa zen emakume langilearen heziketa politikoan inbertsio berezia egitea hura subjektu iraultzaile aktibo bilakatzeko. Horrek eta berdintasunean oinarrituko zen gizarte baten eraikuntzak nahitaezko zeregin bilakatu zuen emakumezkoen gain erortzen ziren lanak sozializatzea eta kolektibizatzea.

Zeregin horretan hasi ziren lehenak zenbait herrialdeetako alderdi sozialdemokratikak izan ziren. Gerora, gai horrek garrantzi handiagoa hartu zuen maila internazionalen antolatutako Emakume Sozialisten Biltzar Internazionalen eta Internazional Komunistaren Biltzarretan.

Artekako zenbait artikulutan egin izan dira aipatutako marko politikoetan izan ziren eztabaidei buruzko hausnarketak ^[2]. Oraingoan, praktikan martxan jarritako proposamen batzuk landuko dira, bai eta haien eraginkortasuna eta mugak aztertu ere.

Ameskeriak izan dira emakume langilearen parte-hartzerik behar izan ez duten iraultza sozialak, eta, era berean, ameskeria da pentsatzea osotasunaren eraldaketa erradikalik gabe emakumea aska daitekeela

**Emakume langilea, nahiz
eta industrializatzen ari
ziren herrialdeetan etxeko
isolamendutik ekoizpen
sozialaren parte izatera
pasatzen ari zen, prozesu
horretan ez zuen aurretiaz
bere gain zituen lanetatik
askatzea lortu**

**EMAKUME SOZIALISTEN BILTZAR
INTERNAZIONALETATIK
INTERNAZIONAL KOMUNISTARA**

Alemaniako Alderdi Sozialdemokratan (SPD) aurki genazake emakume langilearen antolakuntzaz hausnartzen hasi eta antolakuntza hori maila internazionallean hedatu behar zela defendatzen hasi zirenen erroa. Esan daiteke Clara Zetkin delako norabide horri ekarpena egin zion pertsona aipagarrienetako bat. Zetkinen saiakerak SPDren baitatik hasi ziren. Alderdi hori, 1878 eta 1890 urteen arteko ilegalizazio egoerak bultzatuta, klase-independentzia sendoa oinarri hartuta garatu zen; egoera horri aurre egiteko prest zeuden –hau da, klase-kontzientzia zuten– militanteak mantendu eta joera oportunistak baztertu zituen ^[1].

Horrela, Zetkinen emakume langilearen antolakuntza sustatzeko ekarpenak egin zituen maila nazional zein internazionallean. Horren adibide da Zetkinen 1889ko Parisko II. Internazionallean egindako hitzartzearen ondorioz Internazionalak hau onartu izana:

Biltzar honek adierazten du langile ororen betebeharrak dela batetik emakume langilea haien kategoria berean onartzea berdintasunean oinarritutako baldintzetan, eta bestetik bi sexuen arteko “soldata berdintasuna”ren printzipioa babestea, pertsona horien nazionalitatea edozein dela ere. ^[3]

Aitortza esanguratsua izan zen emakume langileentzat, bertan eskubide politikoen berdintasuna aldarrikatzeko lehen pausoak eman baitziren, sexuen arteko inolako diskriminaziorik egin gabe.

Norabide horretan, emakumeek zuten karga bikoitzak emakume langilearen integrazio politikokoan eragiten zituen oztupoak azpimarratu zituzten maila ezberdinetako hausnarketa eta eztabaidek. Izan ere, emakume langilea, nahiz eta industrializatzen ari ziren herrialdeetan etxeko isolamendutik ekoizpen sozialaren parte izatera pasatzen ari zen, prozesu horretan ez zuen aurretiaz bere gain zituen lanetatik askatzea lortu. Horrela, soldatapeko lanak eta eremu pribatuetan egiten jarraitu behar izan zuten lanek emakumea heziketarako eta parte-hartze politikorako aukerarik gabe uzten zuten.

Horregatik, proletar goaren askapenaz, eta, zehazki, emakume langilea bere kateetatik askatzeaz hausnartzen zenean, oso presente zegoen zeregina zen “karga bikoitz” horretatik askatzea:

Internazional Komunistaren III. Kongresuak adierazten du ezen, burgesiaren zapalkuntza deuseztatu duten herrialdeetan, proletariotzaren botere-hartzea eta komunismoaren ezarpena ezin izango direla gauzatu emakume proletarioen eta emakume semiproletarioen parte-hartze aktiborik gabe. ^[4]

ZAINZA-LANEN KOLEKTIBIZAZIOA: NOLA?**Errusiako esperientzia**

Urriko Iraultzarekin boterea sobietarren eskuetara igaro ondoren, familiaren forma tradizionalaren eta etxeko ekonomiaren ezabapenaren bidez emakume langileak erabat askatzea posible ez ezik, sozialismoaren ezarpenerako beharrezko baldintza ere bihurtu zen.^[6]

Boltxebikeen iraultzaren osteko Errusia izan zen zaintza-lanen kolektibizazioaren inguruko hausnarketa eta eztabaidak praktikara eraman zituen lehen esperientzia sozialista^[7]. Boltxebikeek uste zuten, gainera, urgentziatzko zeregina zela hori, sozialismoa ezartzeko eta emakume langilea “karga bikoitzetik” askatzeko beharrezko baldintza baitzen. Hainbat proposamen egin zituzten norabide horretan, eta horiek aztertuko ditugu datozen lerroetan.

Internazional Komunistaren III. Kongresua (1921eko ekainaren 22tik uztailearen 12ra) Emakume Komunisten II. Biltzar Internazionalarekin batera, honakoa adierazten du:

Erregimen sobietarrean [...] sekzioek establezimendu publiko guztien sarea garatzea erraztu behar dute, hala nola haurtzaindegia, garbitegiak eta konponketa-tailerrak, (oinarri komunista berrien gainean dauden erakundeak); horrek emakumeei trantsizio garaiko zama arinduko die, haien independentzia materiala erraztuko du eta etxeko eta familiako esklabo izatetik bizi eredu berri bat eraikitzen lagundu die.^[5]

1917ko Urriko Iraultza errusiarrek tsarraren erregimetik urruntzeko premiatik garatu zen. Iraultza, “ogia, bakea eta lurra” aldarrikatzen zuten boltxebikeen eskutik etorri zen, zeinak errusiarren gehiengoaren babesa baitzuen. 1918-1920 artean, Errusia boltxebikeen eta haien oposizioaren arteko gerra zibil batean murgildu zen. Boltxebikeen garai-penarekin gerra amaitu bazen ere, urteetako gerra-egoerak ondorio aipagarriak eragin zituen; izan ere, gerrak jada atzeratuta zegoen herrialdearen azpiegituraren eta ekonomiaren zati handi bat suntsitu zuen, eta zazpi milioi pertsona ingururen heriotza eragin^[8].

Hurrengo urteetako politikek jabetza pribatua jabetza publikoarekin ordezkatzeko izan zuten helburu. Bizimodu komunala ezartzeko lehen saiakera izan bazen ere, neurri oro gerrak eragindako kostu ekonomikoak mugatu zuen^[9].

Emakumearen askapenaren aldeko borroka langile mugimendurekin batera sortu bazen ere, iraultza ostean hasi ziren neurri espezifikoak hartzen. Horren lehenengotariko isla izan zen Emakume Nekazari eta Langileen Biltzarra, 1918tik aurrera egiten hasi zirena. Ondorio moduan, lekuan lekuko komisiok osatu ziren, agitazio eta propaganda politikoa egiteko funtzioarekin, emakumeak borroka politikora batzeko helburuz.

Boltxebikeen iraultzaren osteko Errusia izan zen zaintza-lanen kolektibizazioaren inguruko hausnarketa eta eztabaidak praktikara eraman zituen lehen esperientzia sozialista. Boltxebikeek uste zuten, gainera, urgentziatzko zeregina zela hori, sozialismoa ezartzeko eta emakume langilea “karga bikoitzetik” askatzeko beharrezko baldintza baitzen

Proposatutako neurriak

1919ko abuztuan, komisio horiek berrantolatu eta *Zhenotdel* delako emakumeen sekzioa egituratu zen, Alderdiaren baitan emakumearen auziari erantzuteaz arduratuko zen lerro bereizia. Haren barneko marko politikoez, batetik, Alderdiaren lan-lerro orokorren baitan emakumearen auziaren arloan erantzun gabe geratzen ziren zirrikituak osatzeko ardura zuten. Bestetik, emakume langileen heziketa politikoa bermatzeko ardura zuten, ordura arte bakartuta egon baitziren, eta gehien-gehienak analfabetoak baitziren.

Haren sorreran, Inessa Armand izan zen idazkaria, baina koleraz hil zen 1920an. Alexandra Kollontai izan zuen erreleboa, zeina 1920-1922 artean egon baitzen kargu horretan. Hurrengo zortzi urteetan, Stalinen garaian *Zhenotdela* bertan behera utzi artean, Sofia Smidovich, Klavdiia Nikolaeva, eta Aleksandra Artiujina egon ziren karguan. Alderdi Boltxebikeak hasieratik hartu zuen bere gain emakumea zaintzalanen kargatik askatzeko ardura, eta, hortaz, praktikara eramane zuten zeregin hori:

Langile bakoitza, izan gizona zein emakumea, iraultzaren soldadu bihurtu behar da, eta prest egon behar da proletarioen eta komunismoaren garaipenerako bere indar guztia emateko. [...] Gainera, ikusirik familiaren forma zaharrak eta etxeko ekonomia zama astuna direla emakume langileentzat, emakumeari iraultzaren eta komunismoaren eraikuntzan ekarpena egitea eragozten diotela eta forma horiek ekonomia eredu berriak sortuz bakarrik ezaba daitezkeela, biltzarrak uste du emakume langileak, antolakuntza forma berriaren adierazpen guztietan aktiboki parte hartuz, forma horietan arreta berezia txertatu behar duela elikaduraren eta banaketa publikoaren modu berriak sortzeko, horiei esker familiarekiko morrontza zaharra indargabetzearen.^[6]

Sekzio horren gidaritzapean hainbat neurri proposatu zituzten, nahiz eta gerra testuinguruaren ondorioz kostuak kontrolatu beharrean aurkitu ziren. Inbertsioen artean, aipagarriak dira adin tarte ugarietako emakumeen hezkuntzara bideratutako inbertsioak. Haien baitan, eta emakumearen etxeko esklabotza deuseztatzea helburu izanik, garrantzi nabaria hartu zuen haurren zaintzaren sozializazioak. Horregatik, hasieratik ahalegindu ziren haurren mantenua publikoa izan zedila bermatzen.

Estatuak hartu zuen haurren ardura jaiotzen zirenetik 16-17 urte izan arte. Hark ematen zizkien produktuak; *haurren txartel* zirelakoan bitartez eskuratzen zituzten. Doako jantokiak ere antolatu zituzten hezkuntza zentroetan, eta jantzi eta zapatak ere ematen zizkieten^[6]. Zehazki, Estatuak haurren mantenu-gastuen %80 bere gain hartu zuen 1920rako (gerra urteak izanik kostu ekonomiko altuak izaten ari ziren). Aldiz, egoera ekonomiko zaugarrienean zeuden eta familia ugariak ziren familientzat doakoa izaten zen^[10].



Garatu zuten beste lerroetako bat jangela publikoena izan zen. Haien bitartez, etxe bakoitzean, modu kolektiboan egiten hasi ziren emakumeek modu indibidualean egiten zuten jarduera hori, lan karga horren ardura sozializatuz. Politika hori Moskun 1918ko maiatzean eta azaroan egindako biltzarretan onartu zuten, eta jarraian jarri zuten martxan.

Jangela publiko horien gestioaz emakumez osatutako lekuan lekuko asanbladak arduratzen ziren^[6].

Aurretik aipatu moduan, gerrako urte luzeek umezurtz asko eta asko utzi zituzten Errusian. Horregatik, Sobietar Batasunak uste zuen Estatuak haur guzti haien gaineko ardura hartu behar zuela. Hori dela eta, 1918an onartutako Familia Kodeak aintzat hartzen zituen Errusian zehar zeuden umezurtzak. Ume horiei *besprizorniki* izena jarri zieten (euskaraz “arreta jarri gabeak”), eta zazpi milioi eta erdi izatera iritsi zirela kalkulatu da. Antzinako nobleen lursailak erabili ziren *besprizornikientzako* etxebizitzak eraikitzeko.



Emakumearen etxeko esklabotza deuseztatzea helburu izanik, garrantzi nabaria hartu zuen haurren zaintzaren sozializazioak

1920rako, Moskun, 9.000 komuna-etxebizitza baino gehiago zeuden, hau da, etxebizitzen %40k eredu komunitarioari jarraitzen zioten

Auzi horri lotuta, adopzioa debekatu zuten. Izan ere, estatu sobietarrak argi zuen ezin zela haurrik bakarrik egon, eta umezurtzak Estatuaren seme-alabatzat hartzen ziren, biztanle orok gizarte sozialistaren baliabideez probesteko aukera izan zezan.

Lehenengo urteetan Estatuak eskaintza mugatu samarra izan zuen haur horientzat, gerraren eta krisi testuinguruaren ondorioz. Eskaintza hori baina, hobetuz joan zen hurrengo urteetan zehar ^[11].

Kasu honi buruz aipatuko dugun azken neurrien artean, komuna-etxebizitzak aipatu behar dira. Izan ere, familia tradizionalan oinarrituta zegoen etxebizitza ereduaren aurrean, komuna-etxebizitzen proposamena garatu zen; uste zuten alokatutako etxebizitzetan familia-unitateak bakartuta bizi zirela, eta, harreman sozial komunistak garatu ahal izateko, beharrezkotzat hartu zuten bakartze hori gainditu eta etxebizitza kolektibo horiek martxan jartzea. Modu horretan, emakumearen gain erortzen ziren etxeko lanak egunerokoan sozializatzeko baldintzak jarri zituzten, etxebizitzok aukera eman baitzuten emakume bakoitzak familiarentzako etxeko lanak bere kasa egitetik lan horiek kolektiboaren arduraz izatera pasatzeko.

Etxebizitza horiek, alde batetik, etxebizitza unitate indibidual batzuk zituzten, eta, bestetik, bizitza komunitarioko esperientziak abian jartzeko espazioak. Horretarako, arropagarbitegi zentralak, haur eskolez eta haurrentzako jangelez hornitu zituzten, besteak beste ^[12].

Datuen arabera, 1920rako, Moskun, 9.000 komuna-etxebizitza baino gehiago zeuden, hau da, etxebizitzen %40k eredu komunitarioari jarraitzen zioten. Kopuru hori hazten joateko asmoa zegoen, errusiarren gehiengoa ohartu baitzen komunitatean bizitzeak zekartzan abantailak zein ziren.

Etxebizitzaren alorrean eskaintza berezi bat egin zitzaie emakumeei: amatasun-etxebizitzak. Haurdun zeuden edo haurrak izan zituzten emakumeei zuzenduta zeuden. Haien helburua bertan zeuden emakumeak lasaitasun handiagorekin eta ardura gutxiagorekin bizitzea zen, haien haurren etorkizunaz kezkatu behar ez izateko etxebizitzak izatea zen.

Aurrerapauso asko eman bazituzten ere, aipatu beharra dago krisi testuinguruak eragin nabaria izan zuela politika berri horiek martxan jartzeko apustuan. Amaierarako, ez zen posible izan neurriok gizarteko eremu guztietara zabaltzea ^[7].



Inessa Armand



Aleksandra Kollontai



Sofia Smidovich



Klavdiia Nikolaeva





Txinako esperientzia

Txinako Iraultzaren hastapenak II. Mundu Gerraren tesuinguruan koka daitezke. Izan ere, 1937-1945 urteen artean Txinak izandako Japoniaren okupazioan komunistek hartu zuten posizioak babes sozial handia lortzea ekarri zien txinatarrei. Maoren tropa gorriak posizioak eta indarra irabazten joan ziren. 1937an 80.000 soldadu izatetik 1945erako 900.000 soldadu eta 2.200.000 miliziano izatera pasatu ziren ^[13].

Izan ere, behin Japonia garaituta, Txinako alderdien arteko kordialtasuna apurtu, eta gerra zibil bati eman zitzaion hasiera. Japoniaren aurkako gerran komunistek irabazitako babesak eraginda, 1949. urtean Txina Maoren Alderdi Komunistaren esku geratzea lortu zuten. Bitartean, nazioartean Gerra Hotza hasi zen, eta bloke kapitalistaren helburua bloke sozialistaren hedapena gelditzea bilakatu zen.

Zailtasunak zailtasun, Txinako Alderdi Komunistak barne-mailako politika ugari jarri zituen martxan Sobietar Batasuna ustez egiten ari zen akatsetatik ikasi eta Txinan sozialismoa ezartzeko. Aipagarria da norabide horretan Iraultza Kultural Proletario Handiarekin aurrera eraman zuten proposamena ^[14].

Kasu honetan ere, presentzia izan zuten emakume langilearen parte-hartze politikoaren inguruko gaiak, baita emakume langilea ekoizpen sozialean integratzeko eta “karga bikoitzetik” askatzeko moduari buruzko inguruko hausnarketek.

Txinako Alderdi Komunistak barne-mailako politika ugari jarri zituen martxan Sobietar Batasuna ustez egiten ari zen akatsetatik ikasi eta Txinan sozialismoa ezartzeko

Txinan proposatutako neurriak ^[15]

Txinan martxan jarri zituzten neurrien artean ere garrantzia nabaria hartu zuten heziketa politikoak eta hezkuntza-eredu berri baten garapenak. Ordea, ez zen espreski emakumeei bakarrik bideratutakoa izan; kontrara, Txinako Herri Errepublikako biztanle orori bideratutako heziketa-eredu bat diseinatu zuten ideia komunistetan oinarritutako moral berri bat eskaintzeko. Izan ere, iraultza komunistak gailendu bazen ere, nahiko errotuta jarraitzen zuten ideia atzerakoiek gizartearen gehiengoaren artean. Horregatik, iraultza politikoa egiteaz gain, alor sozialean zabaltzearen beharra azpimarratu zuten, desberdintasun sozialak dimentsio guztietan gainditzeko. Horrela zioen Txinako militante komunistak batek:

Ez da bakarrik gizon batek egin dezakeena emakume batek ere egin dezakeela; kontua da emakume batek egin dezakeena gizon batek ere egin ahal duela eta egin behar duela.

Heziketa politikorako espazioen adibide moduan, aipagarriak dira Shawango Emakumeen Komiteak, bertako herri-komunako emakumeen %80ek osatuak (5.500 emakume). Komite iraultzaile horiek, hasiera batean, bost zeregin nagusi zituzten:

- 1.- Marxismoa, leninismoa eta pentsamendu maoista ikastea. Hilabeteen sei tarte hartzen zituzten emakumeek horretarako, eta gizonek, beste sei. Batzuek ikasketa-saioa zutenean, besteak arduratzen ziren haurren zaintzaz, eta alderantziz.
- 2.- Iraultzak hartzen zuen norabideari kritika politikoa egiteko gaitasuna eskuratzea, errebisionismoa ekiditeko.
- 3.- Emakumeen parte-hartze politiko integrala sustatzea.
- 4.- Ideia atzerakoiei aurre egitea emakume zein gizonen artean.
- 5.- Familiaren gaineko ulerkera garatu eta iraultzea. Hau da, garapen soziopolitikoaren araberrako familia-ereduaren garapena bermatzea, eta horretarako hausnartzea.

**Iraultza politikoa egiteaz gain,
alor sozialean zabaltzearen
beharra azpimarratu zuten,
desberdintasun sozialak
dimentsio guztietan
gainditzeko**

Lantokiko langileen artean eraikitzen zituzten etxebizitzak, bertan lortutako doako materialak eta teknika sinpleak erabiliz

Etxebizitzan auziari dagokionez, 3-5 familiarentzako doako etxebizitzak sortu ziren lantoki berri batzuen inguruan. Espazio komunak (adibidez sukaldea eta egongela) eta pribatuak zituzten. Lantokiko langileen artean eraikitzen zituzten etxebizitzak, bertan lortutako doako materialak eta teknika sinpleak erabiliz. Etxe horiek doako berogailua zuten.

Aldi berean, emakumea ekoizpen sozialaren parte bilakatzen zihoanez, are garrantzitsuagoa bilakatu zen haurren zaintza nolakoa izango zen pentsatzea. Zentzu horretan, fabrikak garatzen ziren aldi berean, haurtzaindegiak sortu ziren zenbait zerbitzu emateko.



Argi zuten haurren ardura ez zela guraso partikularren gain erori behar. Kontrara, uste zuten ardura sozial izan behar zela haurren garapen fisiko, intelektual, moral eta ideologikoa. Bi motatako haurtzaindegiak sortu zituzten horretarako:

• **Lantokietako haurtzaindegiak**

Bularra ematen ari ziren amek egunean zehar haurrengana bularra ematera joan ahal izateko modukoak ziren, eta adin horretako haurrak zaintzen zituzten doako zerbitzu baten bidez. Ama horiei lan-denbora moduan kontatzen zitzaien haurrei bularra ematen igarotzen zuten denbora. Lantokiko emakumeen komiteak haurtzaindegi baten beharra identifikatzen zuen lehenik, eta, jarraian, langile guztien artean eraikitzen zuten espazioa.

• **Etxebizitza eremuetako haurtzaindegiak**

Bertako haurrak dagoeneko ez ziren edoskitzen ari; 6-7 urtera arteko haurrak biltzen ziren halakoetan. Haurtzaindegiok eguneko 24 orduetan zeuden irekita, eta norberak erabakitzen zuen noiz eta zenbat denborarako eraman haurra (lanean zeuden bitartean, politika egiteko, aisialdirako...). Kostuei dagokienez, zati bat gurasoen lantokiak ordaintzen zuen, eta beste bat auzoaren funts kolektiboak. Ahal zuten gurasoek aukera zuten ekarpen ekonomiko txiki bat egiteko.

Bigarren mota horretako haurtzaindegiak solairu bakarreko eraikin sinpleak ziren, patio handi bat zutenak. Zerbait eremutan banatuta zeuden, gauza desberdinak ikasteko moduan. Oro har, eguneroko lanetarako trebatzen ziren haurrak. Adibidez, ohikoa zen heziketaren tarte txiki batean 3-4 urteko haurrei ontziak garbitzen irakastea, normalizatzeko etxeko lanen gaineko ardura etxeko norbanako ororen gain jausten zela. Gainontzeko denboran beste alor batzuk lantzen zituzten, hala nola musika, dantza eta kirola.

Elkarri loturiko bi etapa zituen heziketaren fase honek: batetik, autonomia indibiduala garatzeko unea (orduan ikasten zuten besteak beste bakarrik jaten, garbitzen eta janzen), eta, bestetik, heziketa kolektiboa, taldean egiten ziren ekintzak ikasteko. Finean, heziketa-prozesua etorkizunean ekoizpen sozialean denek ekarpena baldintza berdinetan egitera bideratuta zegoen.

Txinako kasuan, oro har, herritarrei mota askotako doako zerbitzuak eskaintzen ahalegindu ziren. Horien adibide dira jarraian aipatuko direnak.

Hasteko, Iraultza Kultural Proletario Handiaren garaian herri-jantokiak sortu ziren, bertan jateko edo eramateko jantokietan. Haien kudeaketa sukaldariak, kontsumitzaileak eta hirietako zerbitzu kolektiboaren gainontzeko arduradunek eramaten zuten. Ohikoa bilakatu zen ere etxebizitza-erakin bereko familien artean otorduak prestatzeko txandak antolatzea.

Ohartuak ziren, baita ere, arroparen mantenurako ere denbora dezente behar zela. Horregatik, apurtuta edo zikina zegoen arroparentzako tailerrak sortu zituzten. Arropok bertan utzi eta askotan egunerako bertarako berriro prest zirela itzultzen zituzten norberaren etxera. Prezio oso baxua izaten zuten horrelako zerbitzuek.

Amaitzeko, asko zabaldu ziren zerbitzu medikoak ere. Medikuntzaren arloko jakintza zuten pertsonak zeuden auzoetan, lantokietan, aisialdiko espazioetan... Horrela, edonork, "ohiko" osasun-arazo bat izanez gero, bertan artatua izan ahal zuen, lekuz mugitu beharrik gabe. Arazo komunei aurre egiteaz gain, gaixotasunen prebentziorako lan egiten zuten lekuan lekuko osasun-langile horiek. Bestetik, mediku zentro espezializatuak ere bazeuden, askotariko espezialistak zituztenak. Zerbitzu horren funtsean, gizarteko norbanako guztien arteko elkar-zaintza zegoen, hau da, arazoan aurrean inor bakarrik ez zegoela adierazteko nahia.

Haurren ardura ez zen guraso partikularren gain erori behar. Kontrara, uste zuten ardura sozial izan behar zela haurren garapen fisiko, intelektual, moral eta ideologikoa





BERAZ, LOTZEN ZUTEN KATEETATIK ASKATU ZEN EMAKUMEA?

Ikusi dugun moduan, bi esperientzia horietan, bakoitza bere moduan ahalegindu bazen ere, boterea hartu eta hasieratik presente izan zuten emakumeak etxeko lanen kateetatik askatu, eta gizarteko pertsona oro baldintza berdinetan heztea; helburua, ekoizpen sozialean norbanako orok pareko ekarpena egitea zen, betiere norberaren gaitasunen arabera. Gainera, argi zuten erronka handia zela. Izan ere, bai oro har gizartean, baina baita oraindik haien lerroetan ere, ideia atzerakoi batzuk oso errotuta zeuden, eta horri aurre egiteak lanketa handia eskatzen zien.

Saiakera ugari egin ziren esparru desberdinetan, eta argi dago bi alderdiek garrantzi handia eman ziotela zaintzalanen alorrari, hau da, ez zutela bigarren planoan utzi zaintzalanak birpentsatzearen zeregina.

Neurrian balorazioa egitean baina, ezin diezaiekegu arrakasta totala aitortu. Izan ere, zaintza-lanen kolektibizazioa bultzatu, eta ordura arte emakumeek bakarturik eta era indibidualean egiten zituzten lanek izaera kolektibo eta soziala lortu bazuten ere, emakumeek jarraitu zuten lan horietatik gehienak egiten.

Ez zuten ez ikusiarena egin oraindik mantentzen zen arazo horrekin; jakitun ziren ez zitziola emakumeen zama horri bere osotasunean eman aterabidea. Baina bazekiten botere politikoa hartze hutsak ez zuela egun batetik bestera gizartean errotuta zeuden jokabideak aldatzea ekarriko. Kontrara, botere politikoa hartzetik haratago, bi esperientzia horietan eraldaketa sozialeko pausoak falta izan ziren iraultza komunista erabat gertatzeko.

Horregatik, mugimendu sozialista berriei dagokie iraganeko esperientzietatik ikasi, eta etorkizun berri bateranzko urratsak ematea. Boterea esparru politikotik haratago hartu behar da, esparru ekonomiko eta sozialean ere indar korrelazioan aurrerapausoak eman, eta eraldaketa soziala bere osotasunean posible egiteko. Modu horretan soilik izango baita posible emakume langilea lotzen duten kateetatik behin betiko askatu eta gizarte aske bat eraikitzea. ●

**Boterea esparru politikotik
haratago hartu behar da,
eraldaketa soziala bere
osotasunean posible egiteko**



BIBLIOGRAFIA

[1] Frecia, C. & Gaido, D. (2016). *El marxismo y la liberación de las mujeres trabajadoras: de la Internacional de Mujeres Socialistas a la Revolución Rusa*. Ariadna Universitaria

[2] Nota: para trabajar en profundidad los debates de los congresos internacionales de mujeres trabajadoras ver el 2021eko martxoko *Arteka* (#15) de marzo de 2021: <https://gedar.eus/es/arteka/emakume-komunisten-mugimendu-internazionala-esperientzia-baten-argi-ilunak>

[3] Le Congrès marxiste de 1889 (1976). *Les Congrès internationaux ouvriers socialistes de Paris, juillet 1889*. Minkoff Reprint

[4] Fundación Federico Engels (2010). *La Internacional Comunista. Tesis, manifiestos y resoluciones de los cuatro primeros congresos (1919-1922)*. Fundación Federico Engels

[5] Taber, M. & Dyakonova, D. (2022). *The Communist Women's Movement, 1920-22. Proceedings, Resolutions, and Reports*. Brill



[6] Armand, I. (1920). *La obrera en la Rusia soviética*. *Bulletin Communiste*. (Testu originala Helène Blonina izenez sinatu zuen, bere benetako izena)

[7] Toledo, C. (2006). *El marxismo y el problema de la emancipación de la mujer*. Marxist Internet Archive

[8] Mawdsley, E. (2017). *Blancos contra rojos. La Guerra Civil rusa*. Desperta Ferro

[9] Hobsbawm, E. (2019). *Historia del siglo XX*. Crítica

[10] Andropov, Y. (2017). *Jardines de infancia, guarderías, artek: logros sociales en la URSS*. Organó del Comité Central del Partido Comunista de los Pueblos de España

[11] International Communist League (2006). *La revolución Rusa y la emancipación de la mujer: Mujer y Revolución*. Spartacist (59)

[12] Kollontai, A. (1921). *La mujer en el desarrollo social*. Lluita Comunista Biblioteca

[13] Bianco, L. (1971). *Origins of the Chinese revolution, 1915-1949*. Stanford University Press

[14] Oharra: gai honetan sakontzeko ikusi Artekaren 48. zenbakia, 2023ko apirilekoa. García, M. (2023). *Iraultza Kultural Proletario Handiaz*

[15] Oharra: Txinako esperientzian sakontzeko, ikusi hau: Broyelle, C. (2021). *La mitad del cielo*. Ediciones Dos Cuadrados.

Argitalpena
2024KO MARTXOA
EUSKAL HERRIA

Koordinazioa,
erredakzioa
eta diseinua
**GEDAR LANGILE
KAZETA**

Web
GEDAR.EUS

Sare sozialak
TWITTER ETA
INSTAGRAM
@ARTEKA_GEDAR

Kontaktua
**HARREMANAK@
GEDAR.EUS**

Harpidetza
**GEDAR.EUS/
HARPIDETZA**

Edizioa
**ZIRRINTA
KOMUNIKAZIO
ELKARTEA**
AZPEITIA

Lege gordailua
SS-01360-2019

ISSN
2792-4548

Lizentzia



arteka